

**II
ERANSKINA**

**AURREZKI KUTXAK EZ DIREN BIGARREN MAILAKO MERKATU
OFIZIALETAN NEGOZIAZIORA ONARTUTAKO BALIOAK JAULKITAKO
BESTE ENTITATE BATZUK**

IGORLEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

EKITALDIA 2012

IFK: A95653077

Entitatearen izena:

KUTXABANK, S.A.

Entitatearen helbidea:

**KALE NAGUSIA 30-32,
BILBO
BIZKAIA
48009
ESPAINIA**

KOTIZATUTAKO SOZIE TATE ANONIMOEN GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO
INFORMEA

Eredua hobeto ulertzeko eta gero egin ahal izateko, beharrezkoa da hori betetzeko jarraibideak irakurtzea, informearen amaieran daudenak.

A JABETZAREN EGITURA

A.1. Zehaztu entitateko akziodun edo parte-hartzaile esanguratsuenak, ekitaldiaren itxiera-datan:

Akziodunaren edo parte-hartzailearen izena edo izendapena	Sozietatearen kapitalaren gaineko %a
BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	57,000
GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	32,000
ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	11,000

A.2. Adierazi, egotekotan, akziodun edo parte hartzaile esanguratsuenen arteko harremanak (familiarra, kontratuzkoa edo sozietarioa), entitateak horren berri duen heinean, oso garrantzitsuak ez direnean edo merkataritza-trafiko arruntetik eratorrita daudenean izan ezik.

Harremana duten sozietateen izenak edo izendapenak	Harreman mota	Deskribapen laburra
---	----------------------	----------------------------

BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	Kontratuzkoa	<p>2011KO EKAINAREN 30EAN, BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA, DONOSTIAKO AURREZKI KUTXAK, GASTEIZKO AURREZKI KUTXAK ETA KUTXABANK, S.A-K INTEGRAZIO-KONTRATU BAT SINATU ZUTEN. HORREN ARABERA, KONTRATU-OINARRIDUN KREDITU-ENTITATEEN TALDE FINKAGARRI BATEAN SARTZEA HITZARTU ZUTEN; BERTAN KUTXABANK IZANGO ZEN SOZIEATE NAGUSIA ETA BERE ERAGINKORTASUNA BALDINTZA ETENGARRI BATZUEN MENPE DAGO; HORI GUZTIA MAIATZAREN 25EKO 13/1985 LEGEKO 8.3.D) ARTIKULUA, INBERTSIO-KOEFIZIENTEENA, BALIABIDE PROPIOENA ETA FINANTZA-BITARTEKARIEN INFORMAZIO-RAKO BETEBEHARRENA, BETEZ.</p> <p>KONTRATU HORREK ALDAKETAK IZAN ZITUEN, BERRITZE ALDARAZLEKO BI KONTRATUREN BIDEZ, 2011KO IRAILAREN 23AN ETA ABENDUAREN 30EAN SINATUAK., HURRENEZ HURREN.</p> <p>BALDINTZA ETENGARRI GUZTIAK LORTUTA, KONTRATUA INDARREAN SARTU ZEN, 2012KO URTARRILAREN 1EAN.</p> <p>HORRELA, 2012KO URTARRILAREN 1ETIK KUTXABANK SA KREDITU-ENTITATEEN TALDE FINKAGARRI BATEKO ENTITATE NAGUSIA DA. TALDEA OSATZEN DUTENAK HONAKOAK DIRA: BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA, DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA ETA ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA . HIRU AURREZKI KUTXEK EUREN FINANTZA-JARDUERA BEREIZI DUTE, KUTXABANK SA-REN MESEDETAN.</p>
GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	Kontratuzkoa	IKUS AURREKOA
ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	Kontratuzkoa	IKUS AURREKOA

A.3. Adierazi, egotekotan, akziodun edo parte hartzaile esanguratsuenen arteko harremanak (familiarra, kontratuzkoa edo sozietarioa), entitateak horren berri duen heinean, oso garrantzitsuak ez direnean edo merkataritza-trafiko arruntetik eratorrita daudenean izan ezik.

IFK	Harremana duten sozietateen izenak edo izendapenak	Harreman mota	Deskribapen laburra
G48412720	BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA	Kontratuzkoa	Ikus aurreko atala, integrazio-kontratuari eta zerbitzuak emateko kontratuari buruzkoa

	BAHITETXEA		
G20336251	GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	Kontratuzkoa	Ikus aurreko atala, integrazio-kontratuari eta zerbitzuak emateko kontratuari buruzkoa
G01104256	ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	Kontratuzkoa	Ikus aurreko atala, integrazio-kontratuari eta zerbitzuak emateko kontratuari buruzkoa

B ENTITATEKO ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

B.1. Administrazio Kontseilua edo Organoa

B.1.1. Zehaztu ezazu estatutuen aurreikusitako gehieneko eta gutxieneko kontseilari edo administrazio-organoko kide kopurua:

Gehieneko kontseilari edo administrazio-organoko kide kopurua	20
Gutxieneko kontseilari edo administrazio-organoko kide kopurua	10

B.1.2. Bete ezazu datorren koadroa administrazio kontseiluko edo organoko kideei buruz eta euren izaerari buruz:

ADMINISTRAZIO ORGANOKO KIDEA/KONTSEILARIAK

Kontseilariaren/administrazio organoko kidearen izena	Ordezkaria	Izendapenaren azken data	Izaera
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.		2012-01-02	KONTSEILARI BETEARAZLEA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.		2012-01-02	KONTSEILARI BETEARAZLEA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.		2012-01-02	KONTSEILARI BETEARAZLEA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
ALEXANDER BIDETXEA LARTATEGI jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
JOSU DE ORTUONDO LARREA jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
MARÍA BEGOÑA ACHALANDABASO MANERO jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
JESÚS M ^a HERRASTI ERLOGORRI jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
JESÚS ECHAVE ROMÁN jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.		2012-01-02	KONTSEILARI DOMINIKALA
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA and.		2012-01-02	KANPOKO KONTSEILARI INDEPENDENTEA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.		2012-01-02	KANPOKO KONTSEILARI INDEPENDENTEA
AINARA ARSUAGA URIARTE and.		2012-01-02	KANPOKO KONTSEILARI INDEPENDENTEA

JOSÉ ANTONIO RUIZ-GARMA MARTÍNEZ jn.		2012-01-02	KANPOKO KONTSEILARI INDEPENDENTEA
IOSU ARTEAGA ÁLVAREZ jn.		2012-01-02	KANPOKO KONTSEILARI INDEPENDENTEA

B.1.3. Adierazi itzazu, egotekotan, entitatearen taldeko beste entitateko batzuetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituzten administrazio kontseiluko kideen izenak.

Kontseilariaren/administrazio organoko kidearen izena	Taldeko entitatearen izena	Kargua
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	S.P.E. KUTXA, SAU.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
MARIO FERNANDEZ PELAZ jn.	BILBAO BIZKAIA KUTXA, AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILARIA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILARIA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILARIA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	S.P.E. KUTXA, SAU.	KONTSEILARIA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILARIA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILARIA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	KUFINEX, SL.	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	KONTSEILUKO PRESIDENTEA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILARIA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILARIA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILARIA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	SPE. KUTXA, SAU.	KONTSEILARIA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILARIA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	S.P.E. KUTXA, S.A.U.	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILARIA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILARIA
JESÚS M ^a HERRASTI ERLOGORRI jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILARIA
JESÚS M ^a HERRASTI ERLOGORRI jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILARIA

JESÚS Mª HERRASTI ERLOGORRI jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILARIA
JESÚS Mª HERRASTI ERLOGORRI jn.	S.P.E. KUTXA, SAU.	KONTSEILARIA
JESÚS Mª HERRASTI ERLOGORRI jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILARIA
JESÚS Mª HERRASTI ERLOGORRI jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILARIA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILARIA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILARIA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILARIA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	SPE. KUTXA, SAU.	KONTSEILARIA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILARIA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILARIA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	ARABA GERTU SAU.	KONTSEILARIA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	KUTXABANK EMPRÉSTITOS, SAU.	KONTSEILARIA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	KUTXA KORPORAZIOA, SLU.	KONTSEILARIA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	SPE. KUTXA, SAU.	KONTSEILARIA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	KARTERA 2, SL.	KONTSEILARIA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	KARTERA 1, SL.	KONTSEILARIA

B.1.4. Bete ezazu hurrengo koadroa, kontseilarien edo administrazio-organoko kideen ordainketa agregatuari (ekitaldian sortutakoa) buruzkoa:

Ordainketaren kontzeptua	Banakakoa (mila eurotan)	Taldea (mila eurotan)
Ordainketa finkoa	1.016	0
Ordainketa aldagarria	45	0
Dietak	428	0
Beste ordainketa batzuk	0	0
Guztira:	1.489	0

B.1.5. Identifika itzazu aldi berean kontseilariak edo administrazio kontseiluko kideak ez diren goi-zuzendaritzako kideak, eta ekitaldian bere alde sortutako ordainketa adierazi:

Izena	Kargua
IGNACIO SÁNCHEZ-ASIAÍN SANZ jn.	BANKU-NEGOZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA
JOSÉ ALBERTO BARRENA LLORENTE jn.	BANKU-NEGOZIOKO ZUZENDARI NAGUSI ONDOKOA
FERANDO MARTÍNEZ JORCANO EGUILUZ jn.	BANKU-NEGOZIOKO ZUZENDARI NAGUSI ONDOKOA
MARÍA ALICIA VIVANCO GONZÁLEZ and.	PARTAIDETUEN ETA PROIEKTUEN FINANTZAZIOAREN ZUZENDARI NAGUSIA
FRANCISCO JAVIER GARCÍA LURUEÑA jn.	KONTROL, BARNE-AUDITORIA ETA LEHENDAKARITZA-KABINETEKO ZUZENDARI NAGUSI ONDOKOA.

Goi-zuzendaritzaren ordainsari osoa (mila eurotan)	1.847
---	--------------

B.1.6. Adierazi ezazu kontseiluaren estatutuek kontseilariak edo administrazio kontseiluko kideak agintean egoteko gehieneko urte kopurua zehazten duten:

BAI EZ

Agintean egoteko gehieneko urte kopurua	4
---	---

B.1.7. Adierazi ezazu ea kontseiluan onartzeko aurkezten diren urteko kontu indibidualak eta finkatuak aurrez egiaztatuta dauden:

BAI EZ

Identifika itzazu, egotekotan, entitateko urteko kontu indibidualak eta finkatuak egiaztatu dituzten pertsonak:

Izena	Kargua

B.1.8. Azal itzazu, egotekotan, administrazio kontseiluak berak formulatutako kontu indibidualak eta finkatuak (auditoria-informeak salbu) Batzorde Orokorrean edo baliokidean ez aurkezteko martxan jarritako mekanismoak.

Kontrol, barne-auditoria eta presidentetza-kabineteko zuzendariondoko orokorrak etengabeko harremana du auditoreekin kontabilitate-arauak zorrotz aplikatzeko; eta Auditoria eta Betetze Batzordeak alde aurretik aurreikusten ditu. Batzorde horren funtzioen artean honakoa dago: erregulatutako finantza-informazioa lantzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.

B.1.9. Administrazio kontseiluko idazkaria kontseilaria da?

BAI EZ

B.1.10. Adierazi itzazu, egotekotan, auditorearen finantza-aztertzaileen eta inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia gordetzeko ezarritako mekanismoak.

Auditoria eta Betetze Batzordearen eskumenen artean honakoa dago: kanpoko auditoreekiko harremana izatea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen kontuen berri jasotzeko, batzordeak azter ditzan, eta kontuen auditoria egiteko prozesuarekin erlazionatutako beste edozein gauzatarako, baita kontuen auditorien eta auditorien arau teknikoaren legedian aurreikusitako komunikazioetarako ere.

Edozein kasutan ere, Kontuen Auditoreengandik euren independentzia egiaztatzen duen idatzia jaso behar dute urtero, horri zuzenean edo zeharka lotutako sozietate edo entitateengandikoa; auditoreek edo auditoreei lotutako pertsonak entitate horiei emandako edozein motatako zerbitzu osagarrien inguruko informazioa ere jasoko dute, kontuan auditoriaren legeak eta auditoriako arau teknikoek ezartzen duenaren arabera.

Auditoria eta Betetze Batzordeak, kontuen auditoriaren informea eman aurretik, beste informe bat emango du urtero; informe horretan kontuen

auditoreen independentziaren inguruko iritzia ematen da. Informe horrek, orobat, kontuen auditoriari emandako zerbitzu osagarrien inguruan hitz egin behar izango du.

Auditorea ez da beste zerbitzu batzuetarako kontratatu, eta bere karguak iraupen mugatua du.

B.2. Administrazio Kontseiluko Batzordeak.

B.2.1. Zerrendatu itzazu administrazio-organoak:

	Kide kopurua	Funtzioak
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA	15	ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK SOZIJETATEA ZUZENTZEKO, ADMINISTRATZEKO ETA ORDEZKATZEKO ARDURA DU, AKZIODUNEN BATZORDE OROKORRARI DAGOZKION ARDUREI KALTERIK EGIN GABE. .

B.2.2. Zehaztu itzazu administrazio kontseiluko batzorde guztiak eta bere kideak:

BATZORDE BETEARAZLEA EDO ESKU-ORDEKO BATZORDEA

Izena	Kargua
MARIO FERÁNDEZ PELAZ jn.	PRESIDENTEA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	BATZORDEKIDEA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	BATZORDEKIDEA
JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	BATZORDEKIDEA
JESÚS Mª HERRASTI ERLOGORRI jn.	BATZORDEKIDEA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	BATZORDEKIDEA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	BATZORDEKIDEA

AUDITORIA-BATZORDEA

Izena	Kargua
MARÍA VICTORIA MENDIA LASA and.	PRESIDENTEA
JESÚS ECHAVE ROMÁN jn.	BATZORDEKIDEA
JOSÉ ANTONIO RUIZ-GARMA MARTÍNEZ jn.	IDAZKARIA

IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA

Izena	Kargua
JOSU DE ORTUONDO LARREA jn.	PRESIDENTEA
AINARA ARSUAGA URIARTE and.	BATZORDEKIDEA
IOSU ARTEAGA ÁLVAREZ jn.	IDAZKARIA

ESTRATEGIA- ETA INBERTSIO-BATZORDEA

Izena	Kargua

ARRISKUEN BATZORDE DELEGATUA

Izena	Kargua
MARIO FERÁNDEZ PELAZ jn.	PRESIDENTEA
XABIER GOTZON ITURBE OTAEGI jn.	BATZORDEKIDEA
CARLOS VICENTE ZAPATERO BERDONCES jn.	BATZORDEKIDEA

JOSEBA MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA BUSTINZA jn.	BATZORDEKIDEA
JESÚS M ^a HERRASTI ERLOGORRI jn.	BATZORDEKIDEA
FERNANDO RAPOSO BANDE jn.	BATZORDEKIDEA
LUIS FERNANDO ZAYAS SATRÚSTEGUI jn.	BATZORDEKIDEA

B.2.3. Egin ezazu antolaketa- eta funtzionamendu-arauen deskribapena, baita kontseiluko batzorde bakoitzak edo administrazio kontseiluko kide bakoitzak ezarrita dituen ardurena ere. Egotekotan, kontseilari delegatuaren ahalmenak deskribatu behar izango dira.

Estatu Sozialen 30.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Kontseiluak bere barruan Batzorde BETEARAZLEA, Auditoria eta Betetze Batzordea, Izendapenen eta Ordainketen Batzordea eta Arriskuen Batzorde Delegatua sortu eta mantendu behar izango ditu..

BATZORDE BETEARAZLEA

Estatu Sozialen 30. artikulua arabera, Administrazio Kontseiluari dagokio Batzorde Exekutiboko kide kopurua zehaztea, baita horiek izendatzea ere. Alabaina, honakoak izango dira Batzorde Exekutiboko berezko kideak: Presidentea, aldi berean Batzordeko Presidentea izango dena eta berdinketa-kasuan bozka erabakitzailea izango duena, eta Administrazio Kontseiluko bi Presidenteordeak. Administrazio Kontseiluak Batzorde BETEARAZLEAREN esku utzi ahal ditu delegatu ezin direnak ez diren ahalmen guztiak, Administrazio Kontseiluaren legeak, estatutuek edo araudiak aurreikusitakoaren arabera.

ARRISKUEN BATZORDE DELEGATUA

Estatutu Sozialen arabera, Arriskuen Batzorde Delegatu bat eratuko da; batzorde horri Sozietatearen arriskuen kudeaketa-sistemaren kontrol eta gainbegiratze ahalmenak emango zaizkio. Xede horretarako, honako funtzioak izango ditu:

- i) Taldeko arriskuaren kudeaketa-kontrolerako politiken eta estrategien gaineko proposamenak aztertzea eta ebaluatze;
- ii) Sozietatearen arrisku-mapa eta hartu daitezkeen gehieneko arriskuen profila berrikustea eta aztertzea;
- iii) bezero nagusiekiko esposizioak eta arriskuak, sektore ekonomikoak, eremu geografikoak eta arrisku motak sistematikoki berrikustea; eta
- iv) talde edo bezero bakoitzarentzako arrisku-operazioak onartzea, Sozietateak ezartzen duen arriskuen baimen-sistemaren barruan.

AUDITORIA ETA BETETZE BATZORDEA

Estatutu Sozialen arabera, Administrazio Kontseiluak bere barruan Auditoria eta Betetze Batzordea izendatuko du; batzorde hori gutxienez hiru kidek eta gehienez bostek osatuko dute, eta BETEARAZLEAK ez diren kontseilarien artean aukeratuko dira. Horietako batek behintzat independentea izan behar du, eta beraren ezagutzak eta auditorian, kontabilitatean edo bietan duen esperientzia kontuan hartuta aukeratuko da.

Auditoria eta Betetze Batzordeak bere kideen artean Presidentea aukeratuko du, lau urterik behin aldatu behar dena. Kargua uzten duenetik

urtebetera, berriz aukeratu ahal izango dute. Idazkari bat ere aukeratuko da.

Auditoria eta Betetze Batzordeak honako funtzioak izango ditu, gutxienez:

- (a) Batzorde Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari Auditoria eta Betetze Batzordean planteatzen diren gaien berri ematea, bakoitzari dagozkion eskumenei lotutakoak;
- (b) Sozietatearen barneko kontrolaren, barneko auditoriaren eta arriskuen kudeaketa-sistemen efikazia gainbegiratzea eta kontuen auditoreekin auditorian detektatutako barneko kontrol-sistemen ahulezia esanguratsuak eztabaidatzea;
- (c) erregulatutako finantza-informazio lantzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea;
- (d) Administrazio Kontseiluari kontuen auditoreen izendapena proposatzea, Akziodunen Batzorde orokorrak onar dezan, aplikagarria den araudiaren arabera;
- (e) kontuen auditoreekiko harremana izatea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen kontuen berri jasotzeko, batzordeak azter ditzan, eta kontuen auditoria egiteko prozesuarekin erlazionatutako beste edozein gauzatarako, baita kontuen auditorien eta auditorien arau teknikoek legedian aurreikusitako komunikazioetarako ere.

Edozein kasutan ere, Kontuen Auditoreengandik euren independentzia egiaztatzen duen idatzia jaso behar dute urtero, horri zuzenean edo zeharka lotutako sozietate edo entitateengandikoa; auditoreek edo auditoreei lotutako pertsonak entitate horiei emandako edozein motatako zerbitzu osagarrien inguruko informazioa ere jasoko dute, kontuan auditoriaren legeak eta auditoriako arau teknikoek ezartzen duenaren arabera.

- (f) Auditoria eta Betetze Batzordeak, kontuen auditoriaren informea eman aurretik, beste informea bat emango du urtero; informea horretan kontuen auditoreen independentziaren inguruko iritzia ematen da. Informea horrek, orobat, kontuen auditoriari emandako zerbitzu osagarrien inguruan hitz egin behar izango du.

IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA

Estatutu Sozialen arabera, Izendapenen eta Ordainsarien Batzorde bat eratuko da; batzorde horri ordainketa kontuetarako eta kontseilariak izendatu eta kargutik kentzeko ahalmena emango zaio.

Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea gutxienez hiru kidek eta gehienez bostek osatuko dute, eta kanpokoak edo BETEARAZLEAK ez diren kontseilarien artean aukeratuko dira. Horietako batek presidentearen funtzioa izan behar du. Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeko kideak Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu, kontseilarien ezagutzak, gaitasunak eta esperientzia eta Batzordearen egitekoak kontuan hartuz.

Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen araudiko 3. artikulua ezartzen duenez, hauek izango dira bere funtzioak:

- a) Administrazio Kontseilua osatzeko eta Kontseilari kargurako proposatu behar direnak aukeratzeko irizpideak formulatzea eta berrikustea.

- b) Kontseilariak izendatzeko eta berraukeratzeko eta Administrazio Kontseiluaren barruan eratzen den batzorde edo komite bakoitzeko kideak aukeratzeko irizpide objektiboak formulatzea,
- c) Goi-zuzendaritzako kideen izendapenaz eta kargugabetzeaz informatzea.
- d) Estatutu Sozialetan ezarritako markoaren barruan, Administrazio Kontseiluaren ordainketa-sistema proposatu, bai kontzeptuei bai zenbatekoari bai dirua jasotzeko sistemari dagokienez
- e) Kontseilari exekutiboan edo Kontseilari arruntak baino gehiago diren kontseilari independenteen ordainketen zenbatekoa, eskubideak eta konpentsazioak zehaztea, kontratu bidez hitzartu ahal izateko.
- f) Administrazio Kontseiluari goi-zuzendarien ordainketa-politika proposatzea: kontratuen oinarritzko baldintzak, goi-zuzendariak izan ez baina ordainsari handiak (batez ere aldakorrak) dituzten zuzendarien ordainketak... Izan ere, azken horien jarduerak Sozietateak hartzen dituen arriskueta eragin aipagarria izan dezakete.
- g) Sozietatearen ordainketa-politika zaintzen dela ziurtatzea eta aldian-aldian Kontseilari exekutiboan edo goi-zuzendarien (arriskuen kudeaketaz arduratzen direnak eta kontrol eta betetze funtzioak dituztenak barne) ordainketa-politika berrikustea.
- h) Aldizka ordainketa-programak berrikustea, egokitzapena eta errendimendua neurtzea eta kontseilarien ordainsariak Sozietatearen emaitzetara egokitzen eta moldatzen direla ziurtatzea.
- i) Ordainketen gardentasuna ziurtatzea, eta Administrazio Kontseiluari esanguratsua den informazioa eskatzea.
- j) Kontseilariak euren bestelako betebeharrak profesionalen inguruan emandako informazioa aztertzea, eta Kontseilariak euren lana ondo egiteko eskatzen zaien dedikazioa eragotz dezakeen baloratzea.
- k) Urtean behin gutxienez, funtzionamendua eta lanen kalitatea ebaluatzea, eta ekitaldiko ordainketa-politikaren aplikazioaren barneko ebaluazio zentral eta independente bat egitea.
- l) Kontseiluan behar diren gaitasunak, ezagutzak eta esperientzia ebaluatzea; ondorioz, bakante bakoitza bete behar duten hautagaien funtzioak eta gaitasunak definitzea, eta euren lana ondo egiteko behar duten denbora eta dedikazio zehatza ebaluatzea.
- m) Araudian agertzen diren beste batzuk edo Administrazio Kontseiluak egotzen dizkionak.

B.2.4. Adierazi ezazu auditoria-batzordeak ekitaldian izan duen batzar kopurua:

Batzar kopurua	6
----------------	---

B.2.5. Izendapenen batzordea egotekotan, adierazi ezazu kide guztiak kanpoko kontseilariak edo administrazio-organokoak diren:

BAI EZ

C ERLAZIONATUTAKO OPERAZIOAK

C.1. Zehaztu itzazu zure taldeko entitateen artean baliabideen edo betebeharren transferentzia bat dakarten operazioak, eta entitateko akziodun edo parte hartzaile esanguratsuenak:

Akziodun eta parte hartzaile esanguratsuenaren izena	Entitatearen izena	Harremanaren izaera	Harreman mota	Zenbatekoa (mila eurotan)
BILBAO BIZKAIA KUTXA AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	KUTXABANK, S.A.	Sozietarioa	KONTURAKO DIBIDENDU-DISTRIBUZIOA	15.903
BILBAO BIZKAIA KUTXA AURREZKI KUTXA ETA BAHITETXEA	KUTXABANK, S.A.	Kontratuzkoa	ZERBITZUAK EMATEA	2.180
GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	KUTXABANK S.A.	Sozietarioa	KONTURAKO DIBIDENDU-DISTRIBUZIOA	8.928
GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA	KUTXABANK, S.A.	Kontratuzkoa	ZERBITZUAK EMATEA	678
ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	KUTXABANK, S.A.	Sozietarioa	KONTURAKO DIBIDENDU-DISTRIBUZIOA	3.069
ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA	KUTXABANK, S.A.	Kontratuzkoa	ZERBITZUAK EMATEA	880

C.2. Zehaztu itzazu zure taldeko entitateen artean baliabideen edo betebeharren transferentzia bat dakarten operazioak, eta entitateko administratzaile edo administrazio-kontseiluko kide esanguratsuenak:

Administratzaileen, administrazio-organoko kideen edo zuzendarien izena	Entitatearen izena	Harremanaren izaera	Harreman mota	Zenbatekoa(mila eurotan)

C.3. Zehaztu itzazu talde bereko beste entitate batzuekin egindako operazio aipagarriak, finantza-egoera finkatuak lantzeko prozesutik kentzen ez badira, eta helburu eta baldintzetan entitatearen ohiko trafikoaren parte ez badira:

Entitatearen izena	Operazioaren deskribapen laburra	Zenbatekoa(mila eurotan)

C.4. Identifika ezazu, egotekotan, entitateko kontseilarien edo administrazio-organoko kideen interes-gatazken egoera, SALen 127. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ez dago Sozietateak dakien inongo gatazka-egoerarik.

C.5. Zehaztu itzazu entitatearen edo haren taldearen eta kontseilarien edo zuzendarien artean egon daitezkeen gatazkek detektatzeko, zehazteko eta konpontzeko mekanismoak.

Legediak aurreikusitakoak eta, zehazki, Kapitaleko Sozietateen Legeko 229 eta 230 artikuluetan aurreikusitako komunikazioetan.

D ARRISKUAK KONTROLATZEKO SISTEMAK

D.1. Deskriba ezazu sozietatearen edota haren taldearen arriskueterako politika orokorra, eta zehaztu eta ebaluatu sistemak estaltzen dituen arriskuak; sistema horiek arrisku mota bakoitzera egokitu direla justifikatu.

Sozietateak hainbat jarduera egiten ditu arriskuen kontrol eta kudeaketaren esparruan, Sozietatearen zenbait jarduerari eragiten dieten arrisku nagusiak identifikatzea, ebaluatzea, kudeatzea eta gutxitzea ahalbidetzen duten sistema baten bidez.

KUTXABANK Taldearen arriskuen politika orokorra honako Printzipio Orokorren arabera deskribatzen da:

1. Datozen kudeaketa-printzipio orokorrak KUTXABANK taldearen eremu finkatuan aplikatzekoak dira. Hori dela eta, arrisku mota desberdinen kudeaketak KUTXABANK SA eta haien finantza-jardueragatik bere kreditu-entitateen talde finkagarrikoak diren sozietateak barne hartu behar ditu, Espainiako Bankuaren 3/2008 zirkularreko bigarren arauan definitzen den bezalaxe. Taldeko arriskuaren kudeaketak externalizatu diren funtzioak ere barne hartu behar ditu.
2. Kasu guztietan, arriskua honela definituko da: Taldeak, kategoria bakoitzerako aurreikusitako arrazoiengatik, balio-galera bat izateko aukera. Beraz, arriskuaren kudeaketa-eremua Taldearen balio errealearen defentsak markatuko du; eta kontabilitate-ikuspuntutako galera esplizituz gain, honakoak barne hartuko ditu: lortu gabeko irabaziak, igurikimenen galerak eta Taldeko aktiboen balio errealearen narriadura (kontabilitatean duen isla duela ere).
3. Taldeak uste du arriskuaren profila erdia edo baxua izatea kudeaketa-ereduaren gakoetako bat dela, erantzukizun sozialaren oinarrian; azken horrek jarduerak denboran zehar iraungo dutela, eta ondorioz, bazkideek sozietateari egingo dioten ordainketak ere jarraituko duela, bermatzen du.
4. Arriskuaren profila erdia edo baxua izateko, honakoa behar da: harreman koherente bat arrisku mota desberdinen aurreko esposiziorako tamaina eta konplexutasunaren artean, arriskua kontrolatzeko eta kudeatzeko gaitasun teknikoa izatea eta egiaztatzen dituen baliabide propioen maila. Taldeak aipatutako hiru elementuen arteko harreman orekatua izateko konpromisoa du.
5. Taldearen arrisku-profilaren gaineko azken erantzukizuna KUTXABANK SAREN Administrazio Kontseiluarena da.
6. Administrazio Kontseiluak bere funtzioak delegatu ahal izango dizkio, legez edo estatutuen arabera delegatu ezin denean izan ezik, erabakitze organo kolegiatu batzuei, espezializazio-maila handiagoa dutelako edo libreago daudelako; eta, ondorioz, delegatutako funtzioak hobeto egin ahal izango dituztelako. Administrazio Kontseiluak zehatz-mehatz zehaztu behar ditu aipatutako organoen osaketa, atribuzioak eta funtzionamendua.
7. Administrazio Kontseiluk arriskuen kudeaketa arloan Taldearen jokabide-lerro nagusiak markatuko dituzten printzipioak eta politikak ezarri behar ditu. Printzipio eta politika horiek aldian-aldian berrikusiko dira. Halaber, egoki irizten zaionean, arrisku mota aipagarrienerako politika zehatzak aplikatuko dira.
8. Administrazio Kontseiluak Taldearen kapitalaren politikarako lerro orokorrak definitu behar ditu; eta, egoki baderitzo, araudiaren eskakizunei dagokienez izan nahi dituen gehiegizko baliabide propioak, baita aurreikusitako kaudimen-mailari eusteko eskura dituen mekanismoak ere. Politika hori kaudimeneko helburu korporatibo batzuetan irudikatuko da. Orobat, Taldearen kaudimen-egoeraren planifikazio formalaren emaitzen berri emango da; bertan agertuko dira finantza-egoera ebaluatzeko ariketak, balizko krisi-eszenatokiei aurre egiteko.
9. Administrazio Kontseiluak arriskua kudeatzeko eremuak zedarritzea eta horien gaineko erantzukizuna esleitzea ziurtatuko du. Horretarako, arriskuen tipologia ofiziala ezarriko du, eta horien gaineko erantzukizuna ere bai. Elementu bien konbinazioarekin kudeaketa eremuak ezartzen dira.
10. Administrazio Kontseiluak taldeari antolaketa-egitura egokia eta nahikoa eman behar dio arriskuen kudeaketaren arloan; horrela, erantzukizunak baliabide teknikoak eta giza baliabidez lagunduta joango dira, funtzioak ondo bete ahal izateko. Puntu

honetan, arreta berezia eman behar zaio antolaketa jatorri duten interes-gatazkak saihesteari, bakoitzaren funtzioak betetzeari eragin baitiezaiokete.

11. Administrazio Kontseiluak etengabe Taldeak arrisku-mailaren, arriskuaren izaeraren eta izan ahal dituen arrisku guztien kontrol-markoaren berri izan behar du. Kasu bakoitzeko arriskuaren garrantziaren arabera informazioa emango da. Horretarako, aldizkako *reporting* talde baten parte izan behar du; horrela, sistematikoki, kalitatezko informazio garrantzitsua eskura izango du, hiru hilerik behin gutxienez.
12. Arriskuen kontrolera bideratutako baliabideen nahikotasunari dagokionez, Taldeak ez die ekintza edo ekimen berriei ekingo, identifikatu, neurtu edota kudeatu ezin dituen arriskuak sor baditzakete.
13. Taldeak bere ordainketa-politikak pizgarrien mekanismorik ez duela bermatu behar du; izan ere, politika horiek bere diseinuagatik edo garrantziagatik, arriskuen irizpide korporatiboen aplikazioa konprometitu ahal du langileen aldetik.
14. Guztiz justifikatutako arrazoiengatik Taldeak jardura atipikoak egiten dituenean, edo egitura sozietario konplexuen bidez, edo oso gardenak ez diren jurisdikzioetan edo banku-gainbegiraketaren nazioarteko irizpideak betetzen ez dutenetan, bere gobernu-organoak eta goi-zuzendaritzak jardura horien berri izatea bermatu behar du.
15. Arrisku mota bakoitzarentzat Taldeak ezarritako kontrol-markoek behar bezala dokumentatuta eta formalizatuta egon behar dute, bai printzipioen eta politiken aldetik, bai prozeduren eta jardueraren aldetik.
16. Taldeak ezarritako kontrol-markoen konplexutasun-maila arrisku mota bakoitzaren garrantziaren arabera izango da: proportzionaltasunaren printzipioa nagusituko da uneoro.
17. Taldeak kontingentzia-planak izan behar ditu; plan horiek gertaera zehatzek jardueraren elementu kritikoei eragitekotan egin beharreko ekintzak ezarriko dituzte.
18. Taldeak formulatutako politikak eta aurreikusitako prozedurak betetzen direla egiaztatu behar du, baita erabilitako tresnen sendotasuna eta ezarritako markoen auditoria independente eta aldian-aldikoaren bidez maneiatutako informazioaren kalitatea ere, proportzionaltasunaren printzipioak markatutako parametroen barruan.
19. Taldeak arriskuen kultura integratu bat ezartzea sustatuko du, arriskuen eta horiek kudeatzeko moduen ezagutzan oinarrituta. Xede horretarako, kudeaketa hori oinarritzen den lerro orokorrak zabalduko ditu barne mailan.

Arriskuaren profil globala aurreko printzipioei egokitzen zaiela bermatzeko, KUTXABANK Taldeak arriskuak kudeatzeko azpiegitura bat du, honako konbinazioan oinarritzen dena: arriskuen tipologia propio bat (arriskuaren izaeraren arabera) eta arrisku mota bakoitzari aplikatu ahal zaizkion erantzukizun-maila

Arriskurik aipagarrienezat, Kontrolerako Marko espezifiko bat eratu da. Kontrolerako Marko bakoitzak arriskua tratatzeko ikuspuntu propioa badu ere, guztiek irizpide komun batzuk dituzte, arriskua kudeatzeko zikloaren honako faseei erantzuten dietenak:

- Arrisku-iturri nagusiak identifikatzea eta tipologia estandarizatu baten barruan sailkatzea.
- Maila desberdinetako arriskuak kudeatzeko erantzukizunak esleitzea.
- Politikak eta helburuak ezartzea.
- Arrisku moten garrantzia ebaluatzea eta neurtzea.
- Kudeaketarako prozedurak eta metodologiak (onarpena, jarraipena, transferentzia eta txikitzea, berreskuratzea) ezartzea
- Informazio garrantzitsua lantzea eta zabaltzea: arauen *reporting*-a eta kudeaketakoa.
- Kontrol-markoen dokumentazioa eta formalizazioa.

D.2. Adierazi itzazu sozietateko eta bere taldeko arrisku nagusiak ebaluatzeko, leuntzeko edo txikitzeko ezarritako kontrolerako sistemak.

Kredituaren edo aurkako alderdiaren arriskua:

Modu orokorrean, arrisku mota hori ebaluatzeko, leuntzeko edo txikitzeko kudeaketa- eta kontrol-sistemak gero azalduko diren prozeduretan oinarritzen dira, baita dibertsifikazio-prozedura zentzuetan ere.

Analisi- eta onarpen-prozesua:

Bezero bakoitzarekiko harremanetik eratorritako errentagarritasun-arrisku binomioa optimizatzeko, arriskuaren onarpenaren eta jarraipenaren erantzukizuna negozio-kudeatzaileena eta arrisku-aztertzaileena da; horrek merkataritza-harreman bakoitzaren ikuspegi orokorra izatea errazten du.

Negozio-sarren kudeatzaileek esleipen pertsonal maila bat dute bezeroaren, arriskuaren eta bermearen arabera (muga global bat dute bezeroa). Bankuen bulegoetako zuzendaritzetako esleipenak gainditzen dituzten operazioak Arriskuen arlo zentralen eskuetara igarotzen dira; bertan, beren esleipenen barruan baimendu daitezke, edo Arrisku-batzordean planteatzen dira, honako mailetan tramitatzeko: Zuzendaritza Orokorra, eta Arriskuen Batzorde Delegatua/Administrazio Kontseilua.

Horrez gain, Entitateak barne-mailan *scoring* eta *rating* tresna batzuk garatu ditu, operazioak ebaluatzeko. Tresna horiek era askotako integrazio-maila izan dute kreditu-arriskuen onarpen-prozesuetan.

Instrumentazioa

Operazioen instrumentazio-prozesuek eta euskarri juridikokoek trataera desberdina izaten dute estandarizazio-maila altuko operazioak baldin badira. Kasu horretan, kudeaketa deszentralizatu bat edo operazio berezien kudeaketa bat egiten da, eta espezializatutako zerbitzu zentralak tratatzen ditu.

Jarraipena eta kontrola

Negozio-sareetatik jarraipen operatibo bat egiten da, bezeroekiko harreman zuzenetik eta eguneroko jardueraren kudeaketatik sortzen dena; arriskuak aztertzeko eremuetatik, berriz, jarraipen sistematikoagoa egiten dute, alerten sistema automatikoen laguntzaz.

Arriskuen jarraipena egiteko prozesuek banakako kontrola (bezeroa edo bezero taldeka) eta kontrol orokorra (sektoreka) modu automatikoan egitea ahalbidetzen dute, zenbait alerta-seinaletan oinarrituta.

Berreskuratzeak

Ezarritako berreskuratze prozesuen ondorioz, ordaindu gabeko arriskuak berreskuratze politikak proaktibo bat aplikatzen da, berankorak izateko tendentzia duten kasuak aldeztu aurretik identifikatuta, eta berreskuratzeak kudeatzen espezialistak direnen eskuetan jarrita; horiek dira aplikatzea komeni den berreskuratze prozedurak zeintzuk diren esaten dutenak.

Arriskuen banakako egoeraren eta egoera globalaren gaineko eguneroko informazioa ematen duten informazio-sistemez gain, Entitateak berreskuratzeak kudeatzeko tresna berezi bat ezarri du, espediente bakar batean operazioen finantza-egoera eta egindako gestioen inguruko zehaztapenak jasotzen dituena.

Berreskuratzeen arloak berreskuratze kudeaketaren jarraipena eta laguntza egiteko kudeatzaile espezializatuak ditu bulegoetan deszentralizatuta, baita berreskurapenerako kanpoko enpresen eta auzi bidezko berreskuratzearen kudeaketan espezializatutako abokatuen laguntza ere.

Merkatu-arriskua:

Merkatu-arriskua neurtzeko, besteak beste, Arrisku-balio (VaR - Value at Risk) kontzeptuan oinarritutako metodologiak erabiltzen dira; metodologia horiei esker, finantza-merkatuetako hainbat operazio motatan dauden arriskuen neurri homogenea lortzen da. VaR deritzonak balizko gehieneko galeraren estimazioa egiten du, bere balorazioan eragin dezaketen arrisku-faktoreen aurkako mugimenduen ondorioz sor daitekeena. Estimazio hori dirutan adierazten da, eta data zehatz bati lotuta dago, konfiantza-maila zehatz bati eta zehaztutako denboratarte bati. Horretarako, arrisku-faktore horiek aldagarritasun-maila izaten da kontuan.

Merkatu-arriskuen jarraipena aldian-aldian egiten da, eta kontrol-organoei arrisku-mailaren eta unitate bakoitzarentzat ezarritako mugak betetzearen berri ematen zaie. Horri esker, finantza-produktuen prezioen bariazioaren eta aldakortasunaren ondoriozko arrisku-mailen bariazioak hauteman daitezke.

Arriskuen kontrolarekin batera simulazio-ariketa zehatzak egiten dira, markatuko muturreko egoerekin (*stress testing*). VaR metodologiaren fidagarritasuna *backtesting* tekniken bitartez egiaztatzen da; teknika horiekin VaRetik jasotako estimazioak konfiantza-mailarekin bat datozela ziurtatzen da.

Interes-tipoaren arrisku estrukturala:

Interes-tipoaren arrisku estrukturalaren kudeaketa honela aplikatzen da: KUTXABANK Taldeak interes-tipoen kurben kontrako mugimenduak izateko arriskuaren azterketa zehatza egiten du, arriskua identifikatu eta neurtu, eta merkatuen eta balantzeen egoerarekin bat datozen negozio-helburuak lortzera bideratutako alternatiba komertzialak proposatuko ditu. Horretarako, KUTXABANKek interes-tipoen bariazioen aurreko finantza-margenaren sentsibilitate-azterketak egiten ditu.

Modu orokorrean, arrisku hori txikitzeko teknikak errenta finkoko tresnak eta interes-tipoak estaltzeko finantza-deribatuak kontratatzean oinarritzen da.

Arrisku hori neurtzeko zenbait metodologia erabiltzen dira, hala nola urtebeteren buruko interes-tipoen bariazioen aurreko finantza-margenaren sentsibilitate-azterketak. Horretarako interes-tipoaren *gapa* ikertzen da, epemugaren edo birpreziatze dataren arabera taldekatutako aktiboen eta pasiboen bolumenen berri ematen duena. Azterketa horri esker, interes-tipoen hainbat eszenatokiren efektu teorikoa estimatu daiteke. Hipotesia honakoa da: tipo guztiak neurri berean eta etengabe aldatzen dira.

Horrez gain, epe desberdinetarako tipoen mugimenduen eragina simulatzen da, hau da, kurbaren malda-aldaketak. Simulazio-tekniken bidez, eszenatoki bakoitzaren probabilitatea ezartzen da, modu zehatzago batean interes-tipoen mugimendu posibleen eragina zein izango den jakiteko.

Interes-tipoaren arrisku estrukturala kudeatzeari dagokionez, eskumena duen erabakitze organo kolegiatua Aktiboen eta Pasiboen Batzordea da (APB).

Likidezia-arriskua:

Likidezia-arriskua honela definitzen da: Taldeak balio-galerak izateko arriskua, momenturen baten hirugarrenetikiko ordainketa-konpromisoak bete ezinaren ondorioz, berehala egin daitezkeen aktiboen eta exijitu ahal diren pasiboen arteko desfase tenporala dela eta. Hori dela eta, koste batzuk hartu behar ditu bere gain.

Arrisku hori finantza- edo sistema-krisien ondorioz, edo merkatuek Entitatearen kreditu-kalitatearen inguruan duten ikuspegia narriatzearen ondorioz, gauzatu daiteke; epe-betetze pasibo asko egon direlako era bai.

Likidezia-arriskua KUTXABANKek hartutako konpromisoak finantzatzeko duen gaitasunarekin, merkatuko prezio zentzudunekin eta negozio-planak finantza-iturri egonkorrekin egitearekin erlazionatuta dago. Likideziaren jarraipena independentzia-irizpideekin egiten da, eta kontrol-funtzioak ea kudeaketakoak desberdintzen dira.

KUTXABANKek aktibo likidoen garapenaren aldizkako jarraipena egiten du, eta horien zorro dibertsifikatua dauka. Etorkizuneko beharrei aurrea hartzeko urteroko proiektzioak ere egiten dira.

Paraleloki, likidezia-gap-aren azterketa bat egiten da, epe labur eta erdiko funtsen sarreren eta irteeran arteko diferentziak aztertuz. Arrisku hori txikitzeko, likidezia-iturrien dibertsifikazio-politika bati jarraitzen zaio, finantza-merkatu maioristetarako sarbidearen bidez.

Xede horretarako, KUTXABANK Taldeak enpresaren ordaindukoak eta hipotekazedulak ematen jarraitzen du, eta titulazio propioetatik eratorritako bonoak mantentzen ditu bere balantzean, Europako Banku Zentralaren eta beste organismo batzuen aurrean bere finantza-operazioak kolateralizatzeko.

Arrisku operazionala:

KUTXABANK Taldeak honela definitzen du arrisku operazionala: balio-galerak izateko arriskua, giza akatsen, barne-prozesu ezegokien, sistema-akatsen edo kanpoko motiboen ondorioz.

Arrisku hori kudeatzea Entitatearen alor guztien ardura bada ere, badago unitate berezi bat bigarren mailako kontrolaz arduratzen dena. Unitate horren bidez, metodologia ezarri nahi da, eta arrisku-fokuak identifikatzeko, kontrolatzeko eta txikitzeko tresnak diseinatu; berdin da galerak sortu dituen edo ez. Horren emaitza kudeaketa-marko bat izango da, honakoan oinarritutakoa:

Arriskuaren autoebaluazio kualitatiboaren prozesuan

Izandako galeren eta balizko galeren adierazleetan.

Gertatutako galera operazionalen datu-basean.

Gauzatu beharreko ekintza-planetan

Kontua, azken batean, hauxe da: arriskuak identifikatuko dituen metodologia eta tresnak izatea, arriskuak ahalik arinen detektatzeaz, neurtzea, jarraipena egitea eta arriskua txikitzeko edo estaltzeko ekintza zehatzak proposatzea.

Paraleloki, arrisku mota horren ondorioz benetan gertatutako galeren azterketa zehatz batek kostu/etekin analisiak doitzea ahalbidetzen du inbertsioak erabakitzerako orduan (inbertsio horiek prozesuen kudeaketa eta kontrola hobetzeko egingo dira, edo kalte-aseguruen kontratazioa optimizatzeko), arrisku operazionalaren ondoriozko galera efektiboen datu-base historiko baten bidez.

Bigarren mailako kontrola egiteaz arduratutako unitateaz gain, arrisku operazionalaren kontrol-markoak badu antolakunde osoan zabalduko koordinatzaile-sare bat, dagozkien gestioak egiten dituztenak, administrazio- eta negozio-prozesuen arloaren barruan euren ardurapean.

Erreputazio-arriskua:

Bere izaeragatik beragatik, erreputazio-arriskua modu askotan gerta daiteke; hori dela eta, kudeatzeko era askotako jokabideak erabili ahal dira.

Jarraian, KUTXABANKen egiten diren batzuk adieraziko dira:

a) Taldearen sukurtsal-sarea delitu-ekintzetatik eratorritako zuzitzeko edo terrorismoa finantzatzeko erabiltzen ez dela ziurtatzea. KUTXABANKek esfortzu aipagarria egin du, giza baliabideak eta bitarteko materialak emanez, gai horretan finantza-sektoreko praktika onenekin parekatzeko.

Lantalde berriak egiteari, kontrolerako prozedura zehatzak diseinatzeari, aplikazio informatiko espezializatuak garatzeari eta langileen prestakuntzari esker, taldean duten erantzukizuna modu egokian hartuko dute.

b) Barne-mailan Kode Deontologiko bat onartzea eta zabaltzea; kode horretan, KUTXABANKek enpresa-etikaren printzipioekin eta gardentasunarekin duen konpromisoa jasoko da, eta KUTXABANKeko langileek eta Administrazio Kontseiluko kideek euren jardura garatzean izango duten jarrera etiko eta arduratsua berrmatuko duten printzipioak eta arauak ezarriko dira.

c) Jokabidearen Barne Araudia barne-mailan onartzea eta zabaltzea; araudi horrek baloreen merkatuaren esparruan Taldeko langileei (eta gobernu-organoetako kideei) aplikatu beharreko betebeharrak eta mugak erregulatzen ditu,

d) KUTXABANK Taldeak komunikabideetan duen presentziaren eta agerpen horiek bere erreputazio korporatiboan izan dezaketen eraginaren etengabeko jarraipena.

e) KUTXABANK taldeak dituen marka komertzialen etengabeko kudeaketa, bezeroei egiten zaizkien gogobetetze-inkestak barne.

f) Jasangarritasunaren Memoria bat egitea eta argitaratzea; memoria horrek urteko jardura hiru ikuspuntutatik aztertzen du: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Atentzio berezia jarriko da Entitateak bere interes-talde nagusienekin duen harremanean.

D.3. Sozietateari edo bere taldeari eragiten dion arriskuren bat gauzatu baldin bada, zehaztu itzazu arrisku hori sortu duen egoera, eta ezarritako kontrol-sistemek funtzionatu duten ala ez.

2012an KUTXABANKen ekonomia- eta finantza-inguruaren adierazle nagusiek (langabezia-tasa, BPG...) txarrera egin dute orokorrean. Horrek ekonomiako sektoreek aurkeztutako finantza-merkatuen eta berankortasun-mailen jarrera negatiboa ekarri zuen.

Deskribatutako eszenatokitik eratorritako eraginen artean aipagarrienak kreditu-arriskuarekin erlazionatutakoak dira, eta, batez ere, 2/2012 eta 18/2012 lege-dekretuak argitaratzearekin erlazionatutakoak. Horien bidez, finantza-entitateak higiezinen zorroen saneamendurako gutxieneko batzuk ezartzera behartu dituzte. Eskatutako hornidura-maila aktibo guztientzat ezarri da, finantza-sektore osoarentzat berdina diren parametro batzuen arabera (kontabilitate-egoera, bermea, garapen-maila...). Hori dela eta, ez dira kontuan hartu operazio bakoitzaren beste egoera berezi batzuk.

2/2012 eta 18/2012 lege-dekretuak indarrean jartzeak Espainiako finantza-sektorearen higiezinaren arrisku-zorroaren saneamendu osagarri bat behar izan duela uste da, 35.000 eta 28.000 milioi euroko balioarekin, hurrenez hurren.

KUTXABANK Taldearentzat 2/2012 Lege-dekretua indarrean jartzeak ez zuen bere kreditu-horniduraren igoera esanguratsua ekarri, desagertutako Cajasurren (2011/01/01) aktiboak eta pasiboak eta euskal kutzak (BBK, KUTXA, VITAL) KUTXABANKen (2012/01/01) integratzeagatik egindako saneamenduen ondorioz, hornidura zehatzak eta orokorrak baitzituen, ezarritako gutxienekoetatik oso gorakoak.

18/2012 Lege-dekretua argitaratzeak, berriz, 855 milioi euroan handitu zuen 2012ko ekitaldian galerak izan gabe eta inolako laguntza publikorik eskatu gabe emandako kreditu-horniduren maila.

Taldearen arrisku-kontrolerako sistemen eraginkortasun-mailari dagokionez, esan beharra dago 2012ko udan Espainiako finantza-sektoreko entitate nagusiek egin behar izan zuten esfortzu-proban, Oliver Wyman firma independenteak egindakoa, KUTXABANK Taldea planteatutako estres-eszenatokia gainditzeko kapital osagarri behar izango ez duen entitateen artean geratu zela. Gainera, *Core Tier 1* ratorako eskatzen zen atalasea margen handienarekin gainditzeko sektoreko entitatea zen. (2014rako 11,6% balioetsita, eskatutako %6ren aurrean).

Ekitaldi horretan KUTXABANKen arrisku-profil globalaren indar-guneak azalera ziren, hala nola kaudimen-maila altua, saneamendu politika kontserbatzailea eta sektorearen batez bestekoaren aldean oso baxua den higiezinaren arrisku-zorroaren pisu erlatiboa.

D.4. Adierazi ezazu kontrol-dispositibo horiek ezartzeko eta gainbegiratzeko batzorderik edo gobernu-organorik dagoen, eta esan zein diren bere funtzioak.

Arriskuen Batzorde Delegatua: bere funtzioak Gobernu Korporatiboaren Urteko Informe honetako B.2.3 atalean zehazten dira.

E BATZORDE OROKORRA EDO ORGANO BALIOKIDEA

E.1. Zerrendatu itzazu estatutuetan ezarritako quorumak batzorde orokorra edo organo baliokidea eratzeko. Deskriba ezazu Sozietate Anonimoen Legean aurreikusitako gutxienekoen erregimenetik edo aplikagarria zaion arauditik zertan desberdintzen den.

Estatutu Sozialean 18. artikulua ezartzen duenaren arabera, akziodunen batzorde orokorra, ohikoa edo apartekoa, eratuta geratuko da lehenengo deialdian, bertan dauden akziodunek edo ordezkaturakoek boto-eskubidea duen kapital harpidetuaren %25 dutenean. Bigarren deialdian, batzordearen eraketa baliogarria izango da, bertan dagoen kapitala dena dela ere. Horren gainera egongo dira aplikagarria den legeak momentu bakoitzean ezartzen dituen quorumerako baldintza bereziak edo zorrotzagoak diren Estatutu Sozialak eurak.

Akordioak Estatutu Sozialen 20. artikulua arabera egingo dira, bertan dauden akziodunen edo ordezkaturakoek botoen gehiengo arruntarekin. Alabaina, gutxienez boto eskubidea duen kapital harpidetuaren %59 duten bertan dauden akziodunen edo ordezkaturakoek aldeko botoa behar da, batzordeak honako akordioak egin ahal izateko:

- (i) Kapital soziala gehitzea, preferentzia-eskubidea zati batean edo guztiz kenduta, eta kapital soziala gutxitzea. Salbuespena izango da aplikagarria den araudia betetzeko autoritateak eskatuta egin beharreko kapital handiagotzea. Edozein kasutan, preferentzia-eskubidea kontuan hartuko da, aplikagarria den legearen terminoetan.
- (ii) Obligazio bihurtgarriak, aukerak, *warrants*-ak edo akzioak erosteko edo harpidetzeko eskubidea ematen duten beste edozein balore ematea..
- (iii) Aktiboen eta pasiboen transformazioa fusioa, zatiketa, disoluzioa edo lagapen globala.
- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, Estatutu Sozialetakako 25. artikuluan ezarritako gutxienekoaren eta gehienekoaren barruan.
- (v) Estatutu Sozialak aldatzea.

Horren gainetik egongo dira aplikagarria den legeak momentu bakoitzean ezartzen dituen quorumerako baldintza bereziak, zorrotzagoak baldin badira.

E.2. Azaldu ezazu akordio sozialak egiteko erregimena. Deskriba ezazu Sozietate Anonimoen Legean aurreikusitako gutxienekoen erregimenetik edo aplikagarria zaion arauditik zertan desberdintzen den.

Akordioak Estatutu Sozialen 20.2 artikulua araberako egingo dira, bertan dauden akziodunen edo ordezkaturakoen botoen gehiengo arruntarekin. Alabaina, gutxienez boto eskubidea duen kapital harpidetuaren %59 duten bertan dauden akziodunen edo ordezkaturakoen aldeko botoa behar da, batzordeak honako akordioak egin ahal izateko:

- (i) Kapital soziala gehitzea, preferentzia-eskubidea zati batean edo guztiz kenduta, eta kapital soziala gutxitzea. Salbuespena izango da aplikagarria den araudia betetzeko autoritateak eskatuta egin beharreko kapital handiagotzea. Edozein kasutan, preferentzia-eskubidea kontuan hartuko da, aplikagarria den legearen terminoetan.
- (ii) Obligazio bihurtgarriak, aukerak, *warrants*-ak edo akzioak erosteko edo harpidetzeko eskubidea ematen duten beste edozein balore ematea..
- (iii) Aktiboen eta pasiboen transformazioa fusioa, zatiketa, disoluzioa edo lagapen globala.
- (iv) Kontseilari kopurua zehaztea, Estatutu Sozialetakako 25. artikuluan ezarritako gutxienekoaren eta gehienekoaren barruan.
- (v) Estatutu Sozialak aldatzea.

Horren gainetik egongo dira aplikagarria den legeak momentu bakoitzean ezartzen dituen quorumerako baldintza bereziak, zorrotzagoak baldin badira.

Aipaturako gehiengoak, zorrotzagoak izanik, ez datoz bat Kapitaleko Sozietateen Legeko 201 artikulua arekin; hori dela eta, aurreko puntuetan adierazitako akordioak bertan dauden akziodunen edo ordezkaturakoen botoen gehiengo arruntarekin egingo dira, bigarren deialdian akziodunek boto eskubidea duen kapital harpidetuaren %25 (%50era heldu barik) badute salbu. Kasu horretan, bertan dagoen edo ordezkaturako kapitalaren 2/3en aldeko botoa behar izango da.

E.3. Erlaziona itzazu akziodunen edo parte hartzaileen eskubideak batzordearekin edo organo baliokidearekin.

Ez daude KSLn ezarritako eskubideak baino.

E.4. Adierazi itzazu, labur-labur, informe honi dagokion ekitaldian egindako batzorde orokorretan edo organo baliokideetan egindako akordioak eta ze portzentajerekin egin diren akordioak.

* 2012ko urtarrilaren 1ean akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- Honako kontseilarien dimisioa: Ignacio Sanchez-Asiaín Sanz jauna, Maria Alicia Vivanco Gonzalez andrea, Juan Maria Saenz de Buruaga Renobales jauna, Fernando Irigoyen Zuazola jauna eta Francisco Javier Garcia Lurueña jauna; eta Kontseilaria ez den Idazkariaren dimisioa: Manuel Jaramillo Vicario jauna;
- Sozietateko kontseilari kopurua 15 izango dela zehaztea; eta, estatutuek aurreikusten duten denborarako, datozen pertsonak kontseilari izendatzea:

Mario Fernandez Pelaz jauna, Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna, Alexander Bidetxea Lartategi jauna, Josu de Ortuondo Larrea jauna, Ainara Arsuaga Uriarte andrea, Maria Begoña Achalandabaso Manero andrea, Maria Victoria Mendia Lasa andrea, Luis Fernando Zayas Satrustegui jauna, Jose Antonio Ruiz-Garma Martinez jauna, Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna, Iosu Arteaga Alvarez jauna, Jesus Echave Roman jauna, Jesus Maria Herrasti Erlogorri jauna, Carlos Vicente Zapatero Berdonces jauna eta Fernando Raposo Bande jauna.

- Akordioak egiteko erregimenari dagozkion estatutu sozialen 28. Artikuluko zazpigarren atala aldatzea.
- Kontseilariak 2012ko ekitaldian jasoko dituzten dietak zehaztea.
- www.KUTXABANK.es webgune korporatiboa sortzea, eta Administrazio Kontseiluari berariaz ahalmena ematea, webgunearen funtzionamendurako, mantentzerako, sartzeko eta edukien eguneratzerako beharrezko tramite guztiak egiteko.

* 2012ko martxoaren 1ean akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- Sozietatearen Administrazio Organoari, bere kabuz edo KUTXANBANK Taldeko sozietateren baten bidez, finantza-balioak eta finantza-tresnak emateko baimena ematea; horien gehieneko zenbateko globala hogeita lau mila milioi eurokoa izan daiteke, 5 urteko epean.
- Administrazio Kontseiluari edota Batzorde BETEARAZLEARi, Sozietatearen izenean, aurretik adierazitako mugen barruan, KUTXABANK Taldeko Sozietateek aurreko akordioaren epemugaren barruan ematen dituzten baloreak bermatzeko baimena ematea.

* 2012ko martxoaren 29an akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- Sozietatearen urteko kontuak aztertzea eta onartzea, emaitzaren aplikazioa proposatzea, eta 2011ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko kudeaketa soziala onartzea.

- Kontseilariak 2012ko ekitaldian jasoko dituzten dietak zehaztea; asistentzia-dietak honela bananduko dira: zenbateko finko bat eta kontseilari bakoitzak egiten dituen saio kopuruari lotutako zenbateko bat.

* 2012ko uztailaren 5ean akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeari informe bat eskatzea Kontseilari bakoitzaren izaerari buruz, Ondo Gobernatzeko Kode Bateratuan aurreikusitako kategorien arabera sailkatzeko (BETEARAZLEAK, dominikalak edo independenteak).

* 2012ko urriaren 18an akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- Kontseilari bakoitza Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak proposatutako kategorietan sailkatzea. Horren arabera: (i) kontseilari BETEARAZLEAK izango dira: Mario Fernandez Pelaz jauna, Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna eta Carlos Vicente Zapatero Berdonces jauna; (ii) kontseilari dominikalak izango dira: (a) Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea akziodunaren partetik, Joseba Mikel Arieta-Araunabeña Bustinza jauna, Alexander Bidetxea Lartategi jauna, Josu de Ortuondo Larrea jauna eta Maria Begoña Achalandabaso Manero andrea; (b) GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA akziodunaren partetik, Jesus M^a Herrasti Erlogorri jauna eta Jesus Echave Roman jauna; eta (c) ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA akziodunaren partetik, Fernando Raposo Bande jauna eta (iii) kontseilari independenteak izango dira: Maria Victoria Mendia Lasa andrea, Luis Fernando Zayas Satrustegui jauna, Ainara Arsuaga Uriarte andrea, Jose Antonio Ruiz-Garma Martinez jauna, Iosu Arteaga Alvarez jauna.

* 2012ko azaroaren 15ean akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- 2011ko uztailaren 1ean auditoreen izendapenaren inguruan egindako akordioaren inguruko argipena; akordio horren ondorioz a Deloitte, SL izendatu zen Sozietatearen auditore Sozietatearen lehenengo hiru ekitaldietarako; zehaztu egiten da izendapen hori banakako eta kontsolidatutako urteko kontuei zegokiola.

- Andaluziako Autonomia Erkidegoan zituen berrogeita bost bulegoei atxikitako aktiboak eta pasiboak BBK Bank CajaSur SAUri ematea onartzea.

- CajaSurrek (sozietate lagatzailea) Andaluziako eta Extremadurako Autonomia Erkidegoetatik kanpo zituen zortzi bulegoei atxikitako aktiboak eta pasiboak KUTXABANKi (lagapen-hartzailea) ematea onartzea.

* 2012ko abenduaren 27an akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioak:

- 2012ko ekitaldiaren kontura HOGEITA ZAZPI MILIOI BEDERATZIEHUN MILA (27.900.000,00) euroko dibidendu bat ematea; horren eskuko ordainketaren data 2013ko urtarrilak 15 da.

* 2012ko abenduaren 28an akziodunen aparteko batzorde unibertsala egin zen, eta aho batez egin zituen honako akordioa:

- Borondatezko Erreserbak ematea jaulkipen-sarirako karguarekin.

E.5. Adierazi ezazu webgunearen helbidea eta bertako gobernu korporatiboaren edukira heltzeko modua.

2012 abenduaren 31n, sartzeko helbidea www.kutxabank.es zen. Alabaina, 2013ko administrazio-organoaren akordioaren ondorioz, aldatu egin da. Orduetik www.kutxabank.com da.

E.6. Adierazi existitzen diren sindikatuen edo entitateak emandako baloreen edukitzaileen batzarrak egin diren, informeari dagokion ekitaldian egindako batzarren helburua zein zen, eta egindako akordioak.

Ez da bat ere egin.

F GOBERNU KORPORATIBOAREN GOMENDIOEN JARRAIPEN-MAILA

Adierazi ezazu entitateak noraino betetzen dituen gobernu korporatiboak egun ematen dituen gomendioak. Horrela ez bada, adierazi gomendioak ez dituela bere gain hartzen.

Gomendioaren bat betetzen ez badu, azaldu itzazu zeintzuk diren erakundeak erabiltzen dituen gomendioak, arauak, jarduteak edo irizpideak.

Abenduaren 26ko KEO/3722/2003 ARAUAK aipatzen duen agiri bakarra egiten ez den heinean, Olivencia txostenaren eta Aldama txostenaren gomendioak kontuan hartu behar izango dira atal hau osatzeko; beti ere zure erakundeari ezartzekoak badira.

Gobernu Korporatibo Egokiaren Kode Bateratzailearen gomendioen betetze-maila jarraian adierazi da xeheki; hala ere, kontuan izan behar da KUTXABANK SA ez dela sozietate kotizatua.

1. Sozietate kotizatuaren estatutuek ez dute akziodun batek eman dezakeen boto kopururik mugatuko, eta ez dute sozietatearen kontrola hartzea, merkatuan akzioak eskuratuz, eragotziko duen murrizketarik ere jasoko.

Gomendio hori ez da aplikatzekoa, KUTXABANK SA ez baita sozietate kotizatua. Izan ere, KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du sozietatearen estatutuek horri buruzko mugarik edo murrizketarik ez baitute jasotzen.

2. Sozietate nagusiak eta menpeko sozietate batek kotizatzen badute, zehatz-mehatz jendaurrean zehaztuko dute:

- a) bakoitzaren jarduera arloak eta euren arteko balizko negozio-harremanak; baita menpeko sozietatearen eta taldeko gainerako enpresen artekoak ere.
- b) sortu daitezkeen interesen arteko gatazkei irtenbidea emateko tresnak eta bideak.

Gomendio hori ez da aplikatzekoa, KUTXABANK SA ez baita sozietate kotizatua.

3. Merkataritza-legeek beren-beregi eskatzen ez duten arren, akziodunen Batzar Nagusiak onartu behar izango ditu sozietatearen egitura-aldaketa ekarriko duten eragiketak; eta bereziki, honako hauek:

- a) sozietate kotizatuak *holding* konpainia bihurtzea, sozietateak berak egiten dituen funtsezko jardueren menpe dauden erakundeen barruan sartuz edo "filializazioaren" bidez, erakundeak jabari osoa izan arren.
- b) Funtsezko aktibo operatiboak eskuratzea edo besterentzea, beti ere helburu soziala benetan aldatzen badu.
- c) sozietatearen likidazioa ekarriko duten eragiketak.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du funtsean, eta aurreko ataletan adierazitakoarekin bat dator.

4. Batzar nagusiaren deialdia egiteko iragarkia argitaratzen denean, Batzar Nagusiak hartu beharreko akordioen proposamen zehatzak, 28. gomendioak aipatzen duen informazioa barne, jendaurrean jarriko dira.

Hiru akziodun bakarrik daudenez, egun batzar nagusiek izaera orokorra dute. Hala ere, akziodunei jorratuko diren gaiak buruzko informazioa garaiz helarazten zaie, batzarrak egin aurretik.

5. Funtsean loturarik ez duten gaiak banan-banan bozkatuko dira Batzar Nagusian. Horrela, akziodunek bere erara bozkatu ahal izango dute. Arau hori ondoko kasuetan, bereziki, aplikatzekoa izango da:

- a) kontseilariak izendatzeko edo berresteko; banan-banan bozkatuko dira.
- b) estatutuak aldatzeko; artikulua bakoitzeko edo funtsean lotura duten artikulua-multzo bakoitzeko aplikatuko da.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

6. Sozietateek botoa zatitzea onartu behar dute, legeko akziodun gisa, baina bezero ezberdinen izenean agertuko diren finantza-bitartekariak botoa eman ahal izan dezaten bezeroen aginduekin bat etorrira.

Gomendio hori ez da KUTXABANK SAKi aplikatzekoa.

7. Kontseiluak helburu bakarraz eta kanpo-irizpiderik gabe bere funtzioak bete behar ditu eta akziodun guztiekin berdinduta jokatu behar du. Konpainiaren interesa gidari izango du kontseiluak, enpresaren balio ekonomikoa, era eutsiaz, ahalik eta handien izan dadin. Kontseiluak begiratu du: interes-taldeekin izango dituen harremanetan enpresak legeak eta araudiak bete ditzan; betebeharrak eta zereginak fede onez bete ditzan; bere jarduerara egingo dituen lurraldeak eta arloak ohiturak eta jardunbide egokiak errespetatu ditzan; eta nahita onarturiko gizaritako erantzukizuneko oinarri gehigarriak erretara diezaien.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

8. Kontseiluak bere gain hartu behar ditu, bere zereginen ardatz nagusi gisa, konpainiaren estrategiaren onespina eta berori praktikara eramateko antolaketa zehatza. Era berean, kontseiluak gainbegiratu eta kontrolatu du zuzendaritzak helburuak betetzen dituela eta konpainiaren helburu eta interes sozialak errespetatzen dituela. Horretarako, kontseilu osoak honako hauek onartu ahal izango ditu:

a) sozietatearen politika eta estrategia orokorrak, eta bereziki:

- i) Plan estrategikoa edo negozio-plana; baita urteko aurrekontuen eta kudeaketaren helburuak ere.
- ii) Inbertsio- eta finantzaketa-politika.
- iii) Sozietateen taldearen egitura zehaztea.
- iv) Gobernu korporatiboaren politika.
- v) Erakunde gizaritako erantzukizun-politika.
- vi) Goi-mailako zuzendarien lanaren ebaluaketa eta ordainsari-politika.
- vii) Arriskuen kontrol- eta kudeaketa-politika, baita barne informaziorako eta kontrolerako sistemen aldizkako jarraipena ere.
- viii) Dibidendu-politika, baita auto-zorroa ere, eta bereziki, horren mugak.

b) honako erabaki hauek:

- i) Konpainiaren lehen kontseilari betearazleak proposatuta, goi-mailako zuzendarien izendapena eta balizko kargugabetzea, baita kalte-ordainketaren klausulak ere.
- ii) Kontseilarien ordainsariak; kontseilari betearazleen kasuetan, zeregin betearazleei loturiko ordainsari gehigarria eta euren kontratuek jasoko dituzten gainerako baldintzak.
- iii) Finantza-informazioa; kotizatu izaera dela medio, aldian-aldian jendaurrean ipini behar izango du sozietateak.
- iv) Kantitate handia edota ezaugarri bereziak direla medio, izaera estrategikoa duten inbertsio eta eragiketa guztiak, baldin eta horiek onartzea ez badagokio Batzar Nagusiari.

v) Zerga-paradisutzat jotzen diren herrietan edo eskualdeetan helbideratuta dauden edo asmo berezia duten erakundeen partaidetzak sortzea edo eskuratzea; baita izaera antzeko beste edozein eragiketa edo transakzio ere, baldin eta, bere konplexutasuna dela medio, taldearen gardentasuna kaltetu ahal badute.

c) Sozietateak kontseilariekin, akziodun esanguratsuekin edo kontseiluak ordezkatuak daudenekin, edo horiekin loturiko pertsonekin ("loturadun eragiketak") egiten dituen eragiketak. Hala ere, kontseiluaren eskumen hori ez da beharrezkoa izango, honako hiru baldintza hauek beteko dituzten loturadun eragiketen kasuetan:

Lehena: baldintza oinarriz estandarizatuak dauzkaten kontratuen kariaz burutzen diren eragiketen kasuan eta masiboki bezero askori ezarri ohi zaizkienak.

Bigarrena: ondasunaren edo zerbitzuaren hornitzaile aritzen denak izaera orokorrez ezarritako prezio edo tarifatan egiten diren eragiketak.

Hirugarrena: eragiketak ezin du sozietatearen urteko diru-sarreraren %1 gainditu.

Komenigarria da kontseiluak loturadun eragiketak onestea, auditoria-batzordeak edota zeregin hori esleituta duen batzordeak aldeko txostena aurretik emanda. Gomendagarria da zer ikusirik daukaten kontseilariak botoa ez ematea, ezta botoa eskuordetzea ere; eta kontseiluak horri buruz eztabaidatu eta erabakitzen duen bitartean, bilera-gelatik kanpo egotea.

Gomendagarria da kontseiluari hemen esleitzen zaizkion eskumenak ordezkaezinak izatea, b) eta c) puntuetan aipatutakoak izan ezik. Batzorde Delegatuak, kontseilu osoaren geroko berrespenaz, hartu ahal izango ditu, larrialdiko arrazoiak direla eta.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du funtsean, txosten honen aurreko ataletan adierazitakoarekin bat etorritik.

9. Kontseiluak behar bezalako dimentsioa izan behar du funtzionamendu eraginkor eta parte-hartzailea lortzeko. Beraz, komenigarria da kontseiluaren tamaina bostekoa baino txikiagoa eta hamabostekoa baino handiagoa ez izatea.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

10. Kanpoko kontseilari independenteek eta kontseilari dominikalek kontseiluaren gehiengo zabala osatzea eta kontseilari betearazleen kopurua ahalik eta txikien izatea, sozietate-taldearen konplexutasuna eta kontseilari betearazleek sozietatearen kapitalean duten partaidetzaren portzentajea kontuan hartuz.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

11. Independentea edo kontseilari dominikala ez den kanpoko kontseilaria badago, sozietateak azaldu beharko ditu zergatiak eta loturak, bai sozietatearekin bai akziodunekin.

Gomendio hau ez da KUTXABANK SAK aplikatzekoa.

12. Kanpoko kontseilariari dagokionez, kontseilari dominikalen eta kontseilari independenteen kopuruak islatu beharko dute kontseilari dominikalek ordezkatzeko duten sozietatearen kapitalaren eta gainerako kapitalaren arteko portzentajea.

Proporzionaltasun zehatzeko printzipioa moteldu ahal izango da; horrela, kontseilari dominikalen kopurua ordezkatzeko duten kapitalaren portzentaje osoari dagokiona baino handiagoa izango da:

Lehena: Partaidetza handiko sozietateetan, legez esanguratsutzat har daitezkeen akzio-partaidetzak urriak diren edo bat ere ez dagoen eta balio absolutu handiko akzio-sortak dauzkaten akziodunak dauden egoeretan.

Bigarrena: Akziodun anitzak daude sozietatean, euren artean loturak ez daukate, eta kontseiluan ordezkaturik daude.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

13. Kontseilari independenteen kopuruak kontseilari guztien heren bat ordezkaturik du.

KUTXABANK SAK gomendio hau betetzen du, 15 kontseilarietatik bost independente baitira. Eta gainera, kontseilari dominikalen kopuruak ehuneko ehunean islatzen du sozietatearen kapital sozialaren akzio-osaketa.

14. Kontseilari guztien izaera zein den akziodunen Batzar Nagusiari azalduko dio kontseiluak. Batzarrak izendapena egin edo berretsi beharko du, eta Izendapenen Batzordeak aurretik egiaztatuta, Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean baieztatu, eta dagozkion kasuetan berraztertuko dira. Txosten horretan ere azalduko da ea zergatik kapitalaren %5 baino gutxiagoko akzio-partaidetza daukaten akziodunek eskatutako kontseilari dominikalak izendatu diren. Era berean, txosten horretan azalduko dira zergatik ez diren beste eskaera formalak onartu kontseiluan presentzia izateko, kontseilari dominikalak izendatzea lortu duten besteez bezain besteko akzio-partaidetza edo handiagoa duten akziodunen eskaerak hain zuzen ere.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

15. Kontseilari emakumezkoen kopurua urria bada, kontseiluak arrazoiak eta egoera hori zuzentzeko harturiko neurriak azaldu beharko ditu; eta bereziki, Izendapenen Batzordeak ondokoak begiratuko ditu bete gabeko lekuak betetzeko orduan:

- a) Hautaketa prozedurek kontseilari emakumeen izendapena oztopatu dezaketen berezko joerarik ez dute izango.
- b) Lanbide profil egokia duten emakumeak nahita bilatuko ditu konpainiak, eta izan daitezkeen hautagaien zerrendan sartuko ditu.

KUTXABANK SAK gomendio hau neurri batean betetzen du. Hautaketa prozedurek kontseilari emakumeen izendapena oztopatu dezaketen berezko joerarik ez dute, baina, kontseilari-kargua hartzeko emakumerik ez du nahita bilatzen kontseiluak.

16. Presidenteak, kontseiluaren funtzionamendu egokiaren arduradunak, kontseilariak nahiko informazio aurretik jasotzea bermatuko du; kontseiluaren bileretan kontseilarien partaidetza eta eztabaida sustatuko du, bere kokapen librea eta iritzi propioa gorabehera; batzorde garrantzitsuen presidentekin batera kontseiluaren aldiak aldiko ebaluaketa antolatuko du; baita kontseilari delegatuarena edo lehen kontseilari betearazlearena ere.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

17. Kontseiluaren presidentea sozietatearen lehen kontseilari betearazlea bada, kontseilari independente bati eskumena eman behar izango zaio kontseiluaren deialdia egiteko edota gai ordenaren barruan puntu berriak sartzeko, kanpoko kontseilarien kezkak helarazteko eta koordinatzeko, eta presidentearen ebaluaketa-kontseiluan zuzentzeko. Sozietatearen estatutuen 28. artikulua xedatzen duenaren arabera, Administrazio Kontseilua hilabetean behin bilduko da, oro har, eta gainera, Presidenteak deitzen duen beste aldiz, bere ekimenez edo kontseilari biren eskariz. Kontseiluaren deialdiak bilera lekua adieraziko du, eta gai-zerrendarekin batera etorriko da. Hala ere, kontseilari orok eska dezake gainontzekoen oniritzia gai-zerrendan sartu ez den beste edozein gairi buruz hitz egitea.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

18. Kontseiluaren idazkariak bereziki begiratuko du kontseiluaren jarduteak horrela izan daitezkeen:

- a) Legeen eta araudien hitzari eta espirituari egokituta, baita erakunde arautzaileek onetsitakoak ere.
- b) Sozietatearen estatutuekin eta batzordearen, kontseiluaren eta konpainiak izan ditzakeen gainerako araudiekin bat etorria.
- c) Kode bateratzaileak jasotzen dituen eta konpainiak onartuko zituen gomendioak, gobernu egokiari buruzkoak, kontuan izanik.

Idazkariaren burujabetasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna babesteko, Izendapenen Batzordeak bere izendapenaren eta kargu-uztearen inguruan txostena egingo du eta eta kontseiluaren osoko bilkurak onetsiko du. Izendatzeko eta kargu-uzteko prozedura kontseiluaren araudian jasota egongo da.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

19. Kontseilua behar bezalako maiztasunaz bilduko da, bere zereginak taxuz betetzeko. Ekitaldiaren hasieran finkatuko duen egunen eta gaien programa jarraituko du, eta hasiera batean aurreikusita ez dauden beste puntu batzuk proposatu ahal izango ditu kontseilari orok.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

20. Kontseilarien ez agertze ezinbesteko egoeretara murriztu behar dira, eta gobernu korporatiboaren urteko txostenean zenbatuko dira. Ordezkaritza ezinbestekoa balitz, jarraibideekin batera emango litzaioke.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

21. Kontseilariak edo idazkariak proposamen bati buruzko kezka adierazten badute, edota, kontseilariak izanik, konpainiaren martxari buruzkoa bada, eta kontseiluan kezka horiek ez badira konpontzen, kezkak helarazitakoak hala eskatuta, aktan jaso behar dira.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

22. Kontseilu osoak urtean behin ebaluatu beharko du:

- a) Kontseiluaren funtzionamenduaren kalitatea eta eraginkortasuna.
- b) Izendapenen Batzordeak eginiko txostenetik abiatuta, konpainiaren kontseiluaren presidentearen eta lehen kontseilari betearazlearen zereginak.
- c) Batzordeen funtzionamendua, batzordeek beraiek eginiko txostenetik abiatuta.

KUTXABANK SAK gomendio hori neurri batean betetzen du. Akziodunek funtzio horiek aztertzeke tresna gehigarriak dauzkate.

23. Kontseilari guztiek kontseiluaren eskumeneko gaiei buruz beharrezkotzat jotzen duten informazio gehigarria eskuratzeko eskubide gauzagarria izan behar dute. Estatutuek edo kontseiluaren araudiak aurkakoa ez badute xedatzen, kontseiluaren presidenteari edo idazkariari eskaera egin beharko diete.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

24. Kontseilari guztiek eskubidea dute bere funtzioak betetzeko behar den aholkularitza sozietateari eskatzeko. Sozietateak eskubide hori bermatzeko bide egokiak erabakiko ditu, eta zenbait egoera berezitan, kanpoko aholkularitza eskatu ahal izango da enpresaren kontura.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

25. Sozietateek orientabide programa bat zehaztuko dute. Horren bitartez, enpresari eta gobernu korporatiboaren arauari buruzko informazio azkarra eta nahikoa emango zaie kontseilari berriei. Egoerak horrela eskatzen duenean, ezagupenak eguneratzeko programak ere eskainiko zaizkie kontseilariari.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

26. Sozietateek exijitu behar diete euren kontseilariari bere zereginetan behar bezalako denbora eta esfortzua inbertitu dezaten, funtzioak eraginkortasunez bete ahal izateko. Ondorioz:

- a) Kontseilariak Izendapenen Batzordeari gainerako betebeharrak profesionali buruz jakinarazi behar izango diote, badaezpada eskatutako lanarekin bat ez datorren.
- b) Sozietateek arauak jarri behar dituzte, euren kontseilariak zenbat kontseiluetan parte hartu dezaketen zehaztuz.

KUTXABANK SAK gomendio hori neurri batean betetzen du. Banku kontseilariari dagokionez, sozietateak ez du apropos ikusi araudian ezarritakoa baino haratago doazen murrizketak ezartzea, hau da, zenbat kontseilutan parte hartu dezaketen euren kontseilariak. Kasu horretan, uztailaren 27ko 31/1968 Legeak ezarritakoari lotzen zaio, banka pribatuaren presidenteen, kontseilarien eta goi mailako karguen bateraezintasunak eta mugak zehazten dituenak.

27. Kontseiluak akziodunen Batzar Nagusiari aurkezturiko kontseilariak izendatzeko edo berriz hautatzeko proposamena eta behin behineko izendapena kontseiluan onetsi beharko dira:

- a) Izendapenen Batzordeak proposatuta, kontseilari independenteak direnean.
- b) Izendapenen Batzordeak aurretik txostena eginda, gainerako kontseilariak direnean.

KUTXABANK SAK gomendio hori neurri batean betetzen du.

28. Sozietateek kontseilarietara buruzko honako informazio hau web orrian jendaurrean argitaratuko dute, eta informazioa eguneratuta mantenduko dute:

- a) Profil profesionala eta biografia.
- b) Osatzen duten beste administrazio kontseiluak, sozietate kotizatuak izanik ala ez.
- c) Dagokion kontseilari-maila adieraziko da. Kontseilari dominikalen kasuetan, ordezkatzeko duten akzioduna edo norekin daukaten lotura adieraziko da.
- d) Sozietatean noiz izendatuko duten kontseilari lehengo aldiz, baita ondorengoak ere.
- e) Konpainiaren akzioak eta horien gaineko aukerak, bereak direnak.

KUTXABANK SAK gomendio hori neurri batean betetzen du. Gomendio horrek aipatzen duen informazio guztia ez du web orrian argitaratzen, kontseilarien pribatutasuna errespetatzeagatik, sozietate kotizatuak ez izateagatik, akziodunek beharrezkotzat ez jotzeagatik, eta legeak ez eskatzeagatik.

29. Kontseilari independenteek jarraian ezin izango dute karguan egon 12 urte baino gehiago.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

30. Kontseilari dominikalen dimisioa aurkeztuko dute ordezkatzeko duten akziodunak akzio-partaidetza osoa salduz gero. Beste hainbeste, dagokion kopuruan, aipatutako akziodunak kontseilari dominikalen kopurua murriztea dakarren mailaraino akzio-partaidetza gutxitzen badu.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

31. Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari independente baten kargu-uztea ere proposatuko, izendatutako estatutu-epealdi osoa bete baino lehen, ez badago, behintzat, bidezko arrazoi bat, Izendapenen Batzordeak aurretik bidalitako txostena egonik, kontseiluak igarri duena. Bereziki, kontseilarietara ez baditu bere karguri atxikitako betebeharrak bete, edota Kode honen definizioen III atalaren 5. epigrafean azaldutako kasuren baten aurrean badago, orduan bidezko arrazoi dela ulertuko da.

Kontseilari independenteen kargu-uztea proposatu ahal izango da honako kasuetan ere: Eroste eskaintza Publikoak, sozietatearen kapital-egitura aldaraziko duten bat-egiteak edo antzeko sozietate-eragiketak, baldin eta, aipatutako kontseilu-aldaketa 12. gomendioan adierazitako proportzionaltasun-printzipioak ekarritakoa bada.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

32. Administrazio Kontseiluak ez du kontseilari independente baten kargu-uztea ere proposatuko, izendatuta izan den estatutu-epealdi osoa bete baino lehen, ez badago, behintzat, bidezko arrazoi bat, Izendapenen Batzordeak aurretik bidalitako txostena egonik, kontseiluak igarri duena. Bereziki, kontseilarietara ez baditu bere karguri atxikitako betebeharrak bete, edota Kode honen definizioen III atalaren 5. epigrafean azaldutako kasuren baten aurrean badago, orduan bidezko arrazoi dela ulertuko da.

Kontseilari independenteen kargu-uztea proposatu ahal izango da honako kasuetan ere: Eroste eskaintza Publikoak, sozietatearen kapital-egitura aldaraziko duten bat-egiteak edo antzeko sozietate-eragiketak, baldin eta aipatutako kontseilu-aldaketa 12. gomendioan adierazitako proportzionaltasun-printzipioak ekarritakoa bada.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

33. Kontseiluari aurkeztutako erabakitze-proposamena sozietatearen interesaren aurkakoa izan daitekeela irizten bazaie, kontseilari guztiek argi eta garbi adierazi behar izango dute euren aurkakotasuna. Era berean, interes-gatazkan ez badute harreman zuzenik, kontseilari

independenteeek eta gainerako kontseilariiek egin beharko dute, baldin eta badira kontseiluan ordezkaturuta ez dauden akziodunei kaltetu dakizkiekeen erabakiak.

Kontseilariiek zalantzak azaldu dituenaren inguruan kontseiluak erabaki garrantzitsuak edota errepikakorrek hartzen baditu, kontseilariak dagozkion ondorioak atera behar izango ditu. Bere kargu uztea erabakitzen badu, ondoko gomendioak aipatzen duen gutunean arrazoiak azaldu behar izango ditu.

Gomendio honek ere kontseiluaren idazkaria bete-betean hartzen du, kontseilaria ez izan arren.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

34. Agintaldia amaitu baino lehen, kontseilari batek kargu uzten badu, dimisioa dela edo beste arrazoi bat dela, kontseiluko partaide guztiei gutun bat bidaliko diet arrazoiak azaltzeko. Kargu uzte hori gertakari garrantzitsu gisa helarazi arren, gobernu korporatiboaren urteko txostenean kargu uztearen arrazoiaren berri eman beharko da.

KUTXABANK SAK gomendio hori ez du betetzen, kasu bakoitzean bidezkoak diren legezko betebeharrak gorabehera.

35. Kontseiluak onetsiko duen ordainsarien politikak, gutxienenez, honako kontu hauek aipatu behar ditu:

a) Partaide finkeen diru-zenbatekoa, banakapena barne: kontseiluan eta bere batzordeetan parte hartzeagatiko dietak, eta sortuko den urteko ordainsari finkoaren estimazioa.

b) Ordainsari aldakorrek kontzeptuak, eta bereziki:

i) Aplikatzekoak diren kontseilari motak, ordainsari aldakorrek kontzeptuen garrantziaren azalpena finkoekin alderatuz.

ii) Emaizak ebaluatzeko irizpideak, akzioetan ordainsaria, akzioen gaineko aukerak edota edozein osagai aldakor jasotzeko eskubidea oinarri izanik.

iii) Urteko sari-sistema (bonus) ororen edota esku-dirutan ordaintzen ez diren beste etekin batzuen funtsa eta funtsezko parametroak.

iv) Proposatutako ordainsari-planak sortuko dituen ordainsari aldakorren diru-zenbateko absolutuari buruzko estimazioa, erreferentzia moduan hartuko dituen hipotesien edo helburuen betetze-mailaren arabera.

c) Aurreikuspen-sistemen ezaugarri nagusiak (esate baterako, pentsio osagarriak, bizitza aseguruak eta antzeko figurak), diru-zenbatekoaren edo urteko kostuaren estimazioarekin batera.

d) Goi-mailako zuzendaritzako zereginak egingo dituztenen, esaterako kontseilari betearazleen, kontratuek errespetatu behar dituzten baldintzak. Besteak beste, honako hauek jasoko dira:

i) Iraupena.

ii) Aurreabisu-epea.

iii) Kontratazio-sariei dagozkien gainerako klausulak eta sozietatearen eta kontseilari betearazlearen arteko kontratu-lotura amaitzeagatiko edo aurretik bukatzeagatiko kalte-ordainak edo blindajeak.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du dagozkion aferetan. Aipaturiko zenbait neurri ez dira hartzen, ez baitira KUTXABANK SAK aplikatzekoak.

36. Kontseilari betearazleei ordainsariak zedarrituko zaizkie, eta taldeko sozietateen edo sozietatearen akzioak, akzioen gaineko aukerak, akzioaren balioarekin loturiko tresnak, sozietatearen etekinari atxikiriko ordainsari aldakorrek edo aurreikuspen-sistemak eman.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

37. Kanpoko kontseilarien ordainsaria nahikoa izango da karguak berak eskatzen dituen arduraldia, kualifikazioa eta erantzukizuna ordaintzeko. Hala ere, ez da izango oso handia, ez behintzat euren independentzia arriskuan jartzekoa.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

38. Sozietatearen emaitzekin zer ikusirik daukaten ordainsariak kanpoko auditorearen txostenean jasotako balizko salbuespenak kontuan hartuko dituzte, eta emaitza horiek murriztuko dituzte.

Gomendio hori ez da KUTXABANK SArI aplikatzekoa; kontseilariak ez baitute ordainketa egin ahal izateko horrelako tresnarik.

39. Ordainsari aldakorrak izanez gero, ordainsarien politikek beharrezkoak diren zuhertasun-teknikak erabiliko dituzte; zertarako eta onuradunen arduraldi profesionalarekin lotura izateko eta merkatuen bilakaera orokorretik edota konpainiaren jardueraren sektoretik edo antzeko kasuetatik soilik ez eratorzeko.

Gomendio hau ez da KUTXABANK SArI aplikatzekoa, kontzeptu horiek existitzen ez baitira.

40. Kontseiluak akziodunen Batzar Nagusian kontseilarien ordainsarien politikari buruzko txostena bozkatu egingo du, gai-zerrendatik aparteko puntu gisa, eta kontsultarako bakarrik. Txosten hori kontseilarien esku jarriko da, banan-banan, edo sozietateak ondo deritzon edozein modutan.

Honakoak, bereziki, izango dira txosten horren irizpideak: kontseiluak aurtengorako onetsitako ordainsarien politika eta hurrengo urtetarako aurreikusitakoa. 35. gomendioak aipatzen dituen gai guztiak jorratuko ditu, merkataritzako argibide konprometitua ezagutarazi lezaketan kasuetan izan ezik. Politika horien aldaketa esanguratsuenak azpimarratuko ditu, Batzar Nagusiak aurreko ekitaldian ezarritakoarekin alderatuz. Laburpen orokorra ere jasoko du, zelan aplikatu zen ordainsarien politika aurreko ekitaldian azalduz.

Halaber, ordainsarien politika egiteko orduan Ordainsarien Batzordeak izandako paperari buruzko txostena egingo du kontseiluak. Kanpoko aholkularitza jasoko balu, txostena prestatuko zuten kanpoko aholkularien identitateari buruzkoa egin behar izango zen.

KUTXABANK SAK ez du gomendio hori betetzen.

41. Kontseilariak ekitaldi osoan izandako norbanako ordainsarien banakapena zehaztuko du memoriak, eta honakoak gehituko ditu:

- a) Kontseilari guztien ordainsariaren banakapena. Ondoko hauek barne:
 - i) Kontseilaria izateagatik bertaratze-dietak edota beste ordainsari finko batzuk.
 - ii) Kontseiluko batzorderen batean parte hartzeagatik edota presidentea izateagatik ordainsari gehigarria.
 - iii) Etekinetan edo sarrietan parte hartzeagatik kontzeptupean edozein ordainsari, eta horiek jasotzeko arrazoia.
 - iv) Ekarpen definituko pentsio-planetan kontseilariaren aldeko ekarpenak, edota kontseilariaren eskubide kontsolidatuak gehitzea, baldin eta prestazio definituko pentsio-planen eginiko ekarpenak badira.
 - v) Funtzioak amaituta baldin badaude, ordaindutako edo itundutako edozein kalte-ordaina.
 - vi) Taldeko beste enpresa batzuetan kontseilari izateagatik emaniko ordainsariak.
 - vii) Kontseilari betearazleek jasotako ordainsariak goi mailako zuzendaritzako funtzioak egiteagatik.
 - viii) Aurreko ataletan agertzen ez diren beste ordainsariaren kontzeptu guztiak, berdin dela kontzeptuaren izaera edo ordainketa eginiko taldeko entitatea: eta bereziki, loturadun eragiketa baten aurrean gaudenean, edota ez aipatze horrek kontseilariak jasotzen dituen ordainsari guztien irudia desitxuratzen badu.
- b) Kontseilariari akzioak, akzioen gaineko aukerak edo akzioaren balioarekin loturiko beste edozein tresna ematen baldin bazaie, balizko emate horien banakapena; horrela xehatuta:
 - i) Urtean emaniko akzioen edo akzioen gaineko aukeren kopurua, eta erabiltzeko baldintzak.
 - ii) Urtean erabilitako akzioen gaineko aukeren kopurua, dagokien akzioen kopurua eta erabilpen-prezioa adieraziz.
 - iii) Urte bukaeran erabiltzeko dauden aukeren kopurua, prezioa, data eta gainerako erabilpen-baldintzak adieraziz.
 - iv) Honezkero emandako aukerak erabiltzeko baldintzen gaineko edozein aldaketa.
- c) Kontseilari betearazleek jasotako ordainsarien eta sozietatearen emaitzen edo etekin-neurrien arteko erlazioari buruzko informazioa.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du funtsean, dagokion neurrian.

42. Batzorde Delegatua edo Betearazlea badago (aurrerantzean, "Batzorde Delegatua") kontseilari-maila ezberdinek parte hartzeko egitura kontseiluaren berarenaren antzekoa izango da. Kontseiluaren idazkaria Batzorde Delegatuaren idazkaria izango da.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

43. Batzorde Delegatuak hartuko dituen erabakien eta landuko dituen gaien berri izango du beti kontseiluak. Kontseiluko kide guztiek Batzorde Delegatuaren bileren aktek kopia jasoko dute.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du funtsean.

44. Administrazio Kontseiluaren barruan eratuko dira Balore Merkatuari buruzko Legeak eskatutako Auditoria Batzordea eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea, azkeneko hori batzorde bakarrean edo bi batzordetan osatuta.

Auditoria Batzordea eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordea edo Batzordeak osatzeko eta funtzionatzeko arauak kontseiluaren araudian jasoko dira. Eta honako hauek bere barnean jasoko dituzte:

a) Kontseiluak batzorde horien partaideak izendatuko ditu, batzorde bakoitzaren zereginak eta kontseilarien ezagupenak, trebetasunak eta eskarmentua kontuan hartuz. Kontseiluak horien proposamenen eta txostenen inguruan eztabaidatuko du. Batzordeek, berriz, euren batzarra egin eta ondoko kontseiluaren osoko bilkuran egindako lanaz eta jardueraz jardungo dute.

b) Soilik kanpoko kontseilariak osatuko dituzte arestian aipatutako batzordeak, gutxienez hiru izanik. Kontseilari betearazleak eta goi-mailako zuzendarien bertaratea gorabehera, baldin eta batzordeko kideek horrela erabakitzen badute.

c) Batzordeen presidentek kontseilari independenteak izango dira.

d) Kanpoko aholkularitza eskatu ahal izango dute, euren zereginak bete ahal izateko funtsezko baderitzote.

e) Bilera guztietan akta jasoko da, eta kontseiluko kide guztiei kopia bidaliko zaie.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du funtsean.

45. Gobernu korporatiboaren arauak eta portaera-kodeak barne-mailan ze puntutaraino betetzen diren gainbegiratzeari Auditoria Batzordeari eta Izendapenen Batzordeari dagokie; eta bereizita badaude, Betetze Batzordeari edo gobernu korporatiboari.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

46. Auditoria Batzordeko kideak, eta bereziki presidentea, izendatuko dira kontabilitateko, auditoriako eta arriskuen kudeaketako gaietan dauzkaten ezagupenak eta eskarmentua kontuan hartuz

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

47. Sozietate kotizatuek barne-auditoria izango dute, Auditoria Batzordeak gainbegiratzen dituela, barne kontrolerako eta informaziorako sistemak behar bezala funtzionatzen dutela zaintzeko.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

48. Barne auditoriaren funtzioaren arduradunak Auditoria Batzordeari urteko lan-plana aurkeztuko dio, berori garatzean sortuko diren gertakarien berri emango dio, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran jarduera-txostena aurkeztu egingo dio.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

49. Arriskuen kontrol- eta kudeaketa-politikak gutxienez honako hauek identifikatu behar ditu:

a) Sozietateak ze arrisku motari (operatiboak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, erreputaziokoak...) aurre egin beharko dion. Arrisku finantzarioen edo ekonomikoen barruan pasibo kontingenteak eta balantzetik kanpoko beste arrisku batzuk daude.

b) Sozietateak onegarri irizten dion arrisku-mailaren finkapena.

- c) Identifikatuta dauden arriskuen talka edo eragina arintzeko aurreikusitako neurriak, baldin eta sortzen baldin badira.
- d) Arestian aipatutako arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko barne-kontrolerako eta informaziorako sistemak, baita pasibo kontingenteak edo balantzetik kanpoko arriskuak ere.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

50. Auditoria Batzordeari dagokio:

Lehena: Barne-kontrolerako eta informazioko sistemari dagokienez:

- a) Sozietateari, eta dagozkion kasuetan, taldeari buruzko finantza-informazioa lantzeko eta babesteko prozesua gainbegiratu du. Konsolidazio perimetroaren zedarrapen egokia eta kontabilitateko irizpideen aplikapen zuzena berraztertu behar izango ditu, baita araudian jasotako baldintzak betetzen direla ere.
- b) Barne-kontrolerako eta arriskuen kudeaketarako sisteman aldizka berraztertu behar izango ditu, arrisku nagusiak identifikatzeko, kudeatzeko eta behar bezala ezagutzera emateko.
- c) Barne-auditoriaren funtzioaren independentzia eta eraginkortasuna zainduko ditu. Barneko auditoria-zerbitzuaren arduradunaren hautaketa, izendapena, berrautaketa eta kargu-uztea proposatuko ditu. Zerbitzu horren aurrekontua proposatuko du. Jardueri buruzko aldizkako informazioa jasoko du. Goi-mailako zuzendaritzak euren txostenen gomendioak eta ondorioak kontuan hartzen dituela egiaztatuko du.
- d) Komunikaziorako mekanismo zehatz bat ezarri eta gainbegiratu du. Horren bitartez, langileek isilpekoan, eta egoki irizten bazaio, izena eman gabe ere enpresaren baitan igarriko dituzten irregulartasun garrantzitsuak jakinarazi ahal izango dituzte, eta bereziki, finantzei eta kontabilitateari dagokienez.

Bigarrena: kanpoko auditoreari dagokionez:

- a) Kanpoko auditorea hautatzeko, izendatzeko, berriz hautatzeko eta ordezkatzeko proposamenak eta kontrataziorako baldintzak aurkeztuko dizkio kontseiluari.
- b) Kanpoko auditoreak auditoria-planari buruzko informazioa eta egitaritzapenaren emaitzak aldizka bidaliko dizkio. Goi-mailako zuzendaritzak auditorearen gomendioak kontuan hartzen dituela egiaztatuko du.
- c) Kanpoko auditorearen independentzia bermatu du; eta horretarako:
 - i) Sozietateak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari auditorearen aldaketa gertakizun garrantzitsu gisa jakinaraziko dio. Kargua uzten duen auditorearekin egon daitezkeen desadostasunei buruzko adierazpena aurrekoari erantsiko dio, baita edukari buruzkoa ere, azkeneko hau egongo balitz.
 - ii) Bai sozietateak bai auditoreak auditoriarenak ez diren zerbitzuak emateari buruzko indarreko arauak, auditorearen negozio-kontzentrazioari jarritako mugak eta, oro har, auditoreen independentzia bermatzeko ezarritako arau guztiak errespetatzen dituztela ziurtatuko du.
 - iii) Kanpoko auditoreak uko egiten badu, zeintzuk diren arrazoiak aztertuko ditu.
- d) Taldeak badira, taldeko auditoreak talde barruko enpresen auditorien erantzukizuna bere gain hartzearen alde jokatu du.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

51. Auditoria Batzordeak sozietatearen langile edo zuzendari orori deitu ahal izango dio bileran agertzeko, eta gainera, beste zuzendarien presentziarik gabe agertzea erabaki ahal izango dute.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

52. Bidezkoak diren erabakiak hartu baino lehenago, Auditoria Batzordeak kontseiluari jakinaraziko dio ondoko afera hauei buruz:

- a) Sozietateak aldizka jendaurrean jakinarazi beharko duen finantza-informazioa, kotizatua baita. Batzordeak bermatu behar izango luke tarteko kontuak eta urteko kontuak formulatzeko kontabilitateko irizpide berdinak erabiltzen direla. Zentzu horretan, kanpoko auditorearen berrikuspen mugatua bidezkoa den ala ez hausnartu behar izango luke.
- b) Zerga-paradisutzat jotzen diren herrietan edo eskualdetan helbideratuta dauden edo asmo berezia duten erakundeen partaidetzak sortzea edo eskuratzea; baita izaera antzeko beste edozein eragiketa edo transakzio ere, baldin eta, bere konplexutasuna dela medio, taldearen gardentasuna kalteku ahal badute.
- c) Loturadun eragiketak, ez bazaio gainbegiratzeko edo kontrolatzeko beste batzorde bati aurretiko txostena behar duen funtzioa esleitu.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

53. Administrazio Batzordeak Batzar Nagusiari kontuak aurkezteko ahaleginak egingo ditu auditoriaren txostenean ezer gorde eta kendu barik. Baldin badaude salbuespenak eta erreserbak, Auditoria Batzordeko presidentek eta auditoreek akziodunei argi eta garbi azalduko diete erreserba eta salbuespen horien edukia eta irismena.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

54. Izendapenen Batzordeko edota Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeko kide gehienak kontseilari independenteak izango dira.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

55. Aurreko gomendioetan adierazitako zereginaz gain, honako hauek ere dagozkie Izendapenen Batzordeari:

- a) Kontseiluan beharrezkoak diren eskumenak, ezagupenak eta eskarmentua ebaluatzea. Ondorioz, bete gabeko kargu bakoitzeko hautagaiengan beharrezkoak diren zereginak eta trebetasunak zehaztea. Eta bere lana funtsaz egin ahal izateko halabeharrezko denbora eta arduraldia ebaluatzea.
- b) Presidentearen eta lehen kontseilari betearazlearen ondorengo izateko modu egokiena aztertzea eta antolatzea. Kontseiluari proposamenak egingo dizkio ondorengo izateko prozesua era antolatuan eta planifikatuan gerta dadin.
- c) Lehen kontseilari betearazleak kontseiluari proposatuko dizkion goi mailako zuzendarien izendapenak eta kargu-uzteak jakinaraztea.
- d) Kode honen 14. gomendioan adierazitako genero-dibertsitateari buruzko kontuen berri ematea kontseiluari.

KUTXABANK SAK gomendio hori neurri batean betetzen du, deskribatutako tresnak ez baitaude formalki zehaztuta.

56. Kontseilari betearazleei dagozkien kontuen aurrean, Izendapenen Batzordeak sozietatearen presidenteari eta lehen kontseilari betearazleari aholkua eskatuko die. Kontseilari orok Izendapenen Batzordeari eskatu ahal izango dio kontseilari kargu hutsik betetzeko hautagai potentzialen proposamenak kontuan hartzeko, badaezpada egoki deritzaten.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

57. Aurreko gomendioetan adierazitako zereginaz gain, ondoko hauek ere Ordainsarien Batzordeari dagozkie:

- a) Administrazio Kontseiluari proposatzea:
 - i) Kontseilarien eta goi mailako zuzendarien ordainsarien politika.
 - ii) Kontseilari betearazleen banakako ordainsaria eta kontratuen gainerako baldintzak.
 - iii) Goi-mailako zuzendarien kontratuen oinarritzako baldintzak.
- b) Sozietateak xehatutako ordainsarien politika betetzen eta gordetzen dela begiratzea.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

58. Kontseilari betearazleei eta goi mailako zuzendariei dagozkien kontuen aurrean, Ordainsarien Batzordeak sozietatearen presidenteari eta lehen kontseilari betearazleari aholkua eskatuko die.

KUTXABANK SAK gomendio hori betetzen du.

G HAINBESTE ARGIBIDE JAKINGARRI

Gobernu korporatiboko praktikak aplikatzeko orduan, txosten honetan agertzen ez den jardute garrantzitsuren bat zure entitatean identifikatuta baldin baduzu, aipatu eta azaldu ezazu jarraian edukia.

Txostenaren aurreko atalekin zer ikusirik daukaten informazioa, argipena edo ñabardura atal honen barruan sartu ahal izango dituzu, garrantzizkoak eta ez errepikakorrek baldin badira.

Zehazki, gobernu korporatiboaren kontuei dagokienez, adierazi ezazu zure entitatea Estatu Espainolarena ez den legedipean dagoen. Bidezkoa bada, gehitu ezazu txosten honek eskatzen duen ez bezalako baina eman beharreko informazioa.

Gobernu korporatiboaren urteko txostenean adierazitakoari ez zaio gobernu korporatiboaren garrantzizko besterik gehitu behar.

Aurrekoa gorabehera, B.1.2 atalari (bete ezazu datorren koadroa administrazio kontseiluko edo organoko kideei buruz eta euren izaerari buruz) dagokionez, ondoko ñabardura egin beharra dago:

Txosten hau idaztean, Carlos Vicente Zapatero Berdonces jauna eta Fernando Raposo Bande jauna, ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA akziodunak euren izendapena bultzatuta, Sozietatearen kontseilariak ez dira, zeren eta 2013ko urtarrilaren 31n, -ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXAK hala eskatuta, karguak utzi zituzten, eta euren ordeaz Juan Maria Ollora Ochoa de Aspuru jauna eta Luis Viana Apraiz jauna Administrazio Kontseiluko kide izendatu ziren, biak kontseilari dominikal gisa. Halaber, 2013ko otsailaren 7an, Integrazio kontratuak xedatutakoarekin bat etorritz, Luis Viana Apraiz jauna Administrazio Kontseiluko presidenteorde izendatu zen.

B.1.3 atalari dagokionez (adierazi itzazu, egotekotan, entitatearen taldeko beste entitateko batzuetan administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituzten administrazio kontseiluko kideen izenak), ondoko ñabardura egiten da:

Carlos Vicente Zapatero Berdonces jauna -ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXAren Administrazio Kontseiluko presidentea 2012ko azaroaren 21era arte izan zen.

Xabier Gotzon Iturbe Otaegi jauna KUTXABANK ASEGURADORA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.U. eta KUTXABANK VIDA Y PENSIONES COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.U. konpainien Administrazio Kontseiluko presidentea 2012ko urtarrilaren 25era arte izan zen; GRUPO INMOBILIARIO INVERLUR, S.L.U. konpainiaren Administrazio Kontseiluko presidentea 2012ko maiatzaren 18ra arte izan zen; NORBOLSA SOCIEDAD DE VALORES, S.A. konpainiaren Administrazio Kontseiluko presidentea 2012ko martxoaren 20ra arte izan zen; eta SERINOR SOCIEDAD CIVIL konpainiaren kontseilaria 2012ko otsailaren 20ra arte izan zen.

Txosten hau idazten den egunerako, Carlos Vicente Zapatero Berdonces jaunak eta Fernando Raposo Bande jaunak entitatearen taldea osatzen duten beste entitate batzuetan ez dute administrari edo zuzendari kargurik. Juan María Ollora Ochoa de Aspuru jaunak eta Luis Viana Apraiz jaunak euren karguak hartu dituzte.

B.2.2 atalari dagokionez (zehaztu itzazu administrazio kontseiluko batzorde guztiak eta bere kideak), honako ñabardura hau egiten da:

Txosten hau idazten den egunerako, Carlos Vicente Zapatero Berdonces jaunak eta Fernando Raposo Bande jaunak ez dira entitatearen Batzorde Betearazleko eta Arriskuen batzorde Delegatuko kideak. Juan Maria Ollora Ochoa de Aspuru jaunak eta Luis Viana Apraiz jaunak euren karguak hartu dituzte.

Entitatearen Administrazio Kontseiluak, gobernu korporatiboko urteko txosten hau onetsi du, 2013ko otsailaren 28ko batzarrean.

Luís Viana Apraiz eta Juan María Ollora Ochoa de Aspuru kontseilari jaunek es dute botorik eman.

Bat ere ez

Sarrera

Gaur eguneko testuinguruan, Kutxabankek barneko kontrolerako mekanismoak ditu ezarrita; mekanismo horien helburua Entitatearen eta bere Taldearen merkatuetan argitaratutako informazioa osoa, fidagarria eta aproposa izan dadila bermatzea da.

Kutxabanken Finantza Informazioaren Kontrolerako Sistemaren (aurrerantzean FIKS) diseinua egiteko, CNMVk argitaratutako Kotizatutako entitateetako finantza-informazioari buruzko kontrolerako dokumentuko edukia erabili da. Hori dela eta, epigrafe honetan erabilitako terminologia, aipatutako gidako definizioei lotuta dago.

Jarraian, Kutxabanken FIKSen ikuspegi orokor bat emango da, berori osatzen duten osagai nagusien deskribapen eta guzti.

1. Entitatearen kontrola

1.1 Ze organo edota ze funtzio diren honakoen arduradun: (i) FIKS egoki eta eraginkor bat egon eta mantentzea; (ii) FIKS ezartzea; eta (iii) FIKS berrikustea

Kutxabanken Administrazio Kontseilua da FIKS egoki eta eraginkor bat egotearen arduraduna.

Administrazio Kontseiluaren Araudiak, 5. artikuluan, honakoa ezartzen du: "Administrazio Kontseiluaren funtzioen artean kontrolaren eta arriskuen kudeaketaren politika ezartzearena dago, baita barneko kontrol-sistema eta informazioaren kontrola egoki antolatzearena eta sistemei aldizkako jarraipenak egitearena ere".

Halaber, Administrazio Kontseiluaren Araudiko 16. artikulua ezartzen duen bezala, "auditoria eta betetze batzordeak Administrazio Kontseiluari bere funtzioetan lagunduko dio: Elkarteko barneko kontrolaren efikazia, barneko auditoria eta arriskuen kudeaketarako sistemak gainbegiratzea, eta Kontuen Auditoreekin auditorian detektatu diren barneko kontrol-sistemaren ahulezia esanguratsuak eztabaidatzea".

Zentzu horretan, Auditoria eta Betetze Batzordeko eskumenen artean dago erregulatutako finantza-informazioa egiteko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.

Bestalde, Kontrol eta Auditoriako Zuzendaritza-ondoko Orokorrak Auditoria eta Betetze Batzordeari lagunduko dio, kudeaketarako eta arriskuen kontrolerako sistemak (horien artean dago finantza-informazioa lantzearen prozesua) egoki diseinatu eta ezarri direla gainbegiratu izanaz informatzeko; eta sistemek egoki eta efizientziaz funtzionatzen dutela ziurtatuko du.

Azkenik, Finantza Zuzendaritzak arriskuen kudeaketa eta kontrolerako sistemak diseinatzen eta implementatzen laguntzen du, batez ere sistema horiek egiteari eta aurkezteari dagozkionetan, eta merkatuetan zabaltzen den finantza-informazio guztian.

1.2. Honako elementuak existitzen diren, bereziki finantza-informazioa lantzearen prozesuari dagokionez:

Departamentuak edo mekanismoak honakoaz arduratzen dira: (i) antolakuntza-egituraren diseinuaz eta berrikusketaz; (ii) erantzukizun- eta autoritate-lerroak argi eta garbi definitzeaz, egitekoak eta funtzioak ondo bananduta; eta (iii) entitatea ondo zabaltzeko prozedura nahikoa egoteaz, batez ere, finantza-informazioa lantzeari dagokionez.

Entitatearen antolakuntza-egituraren diseinua eta berrikusketa eta erantzukizun- eta autoritate-lerroen definizioa Administrazio Kontseiluko irizpideek markatzen dute.

Izendapen eta Ordainketa Batzordeak, Administrazio Kontseiluak ezartzen duenaren arabera, Kontseiluari goi-zuzendarien izendapenen eta kargu-uzteen berri ematearen funtzioa du, eta bere ordainketa-politika proposatzearena eta politika hori berrikusten dela bermatzearena ere bai.

Giza Baliabideen Zuzendaritza da funtzioei egokitzen zaien profila duten eta hitzartutako lan-kargaren arabekoak diren baliabideak izendatzearen arduraduna, arloko arduradunaren Zuzendaritzarekin batera; Administrazio Kontseilua da Entitatearen antolakuntza-egitura onartzearen arduraduna.

Entitatearen organigraman antolakuntza-egiturako zuzendaritza, arlo eta departamentu guztiak daude, eta zuzendaritza guztiek funtzioen eskuliburuak dituzte; bertan, zuzendaritza bakoitzaren funtzioak eta erantzukizunak definitzen dira. Definizio horien artean, finantza-informazioaren lanketan sartutako zuzendaritza-postuena dago.

Finantza Zuzendaritzaren arloa da merkatuetan aurkeztutako finantza-informazioa lantzearen arduraduna, eta organigrama funtzional propioa du: bertan definitzen dira bere erantzukizunak, egitekoak eta funtzioak.

Jokabide-kodea: onartze organoa, zabalpen-maila, printzipioak eta baloreak (operazioen erregistroaren eta finantza-informazioaren lanketaren aipamenik dagoen adierazita) eta ez betetzeak aztertzeko eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzeko organoa.

Kutxabankek Kode Deontologiko bat du, Administrazio Kontseiluan onartutakoa; horren zabalpena Entitatearen intranetaren bidez egitea ezartzen da.

Kodea Kutxabankeko Administrazio Kontseiluari eta langile guztiei aplikatuko zaie; orobat, Baloreen Merkatuetako Jokabide Kodearen eta beste Jokabide kode batzuen mendean dauden beste pertsona batzuei ere aplika dakieke.

Kode Deontologikoak jokabideen oinarritzko printzipioak jasotzen ditu, bai barneko harremanetan bai kanpokoetan, Zergapetutako Pertsonen aplikagarriak direnak; baita balizko egoera zehatzetarako jokabideenak ere (informazio pribilegiatua, datuen babesa...); aipamen zehatzak ere baditu merkatuen esku jartzen den finantza-informazioaren lanketa- eta integritate-prozesuekin erlazionatutako barneko prozeduren inguruan.

Arau-betetzearen eta Barneko Kontrolaren Zuzendaritzaren eskumena da Kode Deontologiko horren zabalpena, ezagutza eta betetzea sustatzea. Aldiz, Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ardura da, ez betetze kasuetan, dagozkion diziplina-neurriak aplikatzea.

Salaketen kanala, Auditoria Batzordeari honakoen berri ematea ahalbidetzen duena: finantza- eta kontabilitate-irregularitasunak, jokabide-kodea ez betetzea, jokabide irregularrak antolaketan... Kasu bakoitza konfidentziala den adierazi behar da.

Kutxabankek Kanal Etiko bat du, barne-mailako salaketak komunikatzeko, kode deontologikoaren arau-hausteen eta finantza- eta kontabilitate-irregularitasunen berri emateko, edo, orokorrean, antolakundearen barruko jokabide irregular edo iruzurgileena.

Kanal horren bitartez jasotako komunikazioak Arau-betetzearen eta Barneko Kontrolaren Zuzendaritzak tratatu eta aztertuko ditu modu konfidentzialean, eta, tramitera onartzen direnean, Giza Baliabideen Zuzendaritzari jakinarazten zaizkio.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak, salatutako jokabidea frogatuta eta konfirmatuta geratzen bada, Hitzarmen Kolektiboak edo aplikagarria den lan-legediak aurreikusitako falten eta zigorren erregimenari dagozkion diziplina-neurriak aplikatzea erabakiko du; ondoren, Arau-betetzearen eta Barneko Kontrolaren Zuzendaritzari bidaliko dio informea.

Kanal honek ondo funtziona dezan, Entitateko intranetean zuzeneko sarbide bat sortu da; bertan formulario bat dago, Kode Deontologikoko operazioak salatu ahal izateko.

(iii) Aldian-aldiko prestakuntza- eta eguneratze-programak, finantza-informazioaren prestakuntzan, ebaluazioan eta berrikusketan sartutako langileentzat; langile horiek gutxienez kontabilitate-arauak, auditoria, barneko kontrola eta arriskuen kudeaketa egiten dutenak izango dira.

Finantza-informazioarekin erlazionatutako prozesuetan sartuta dauden Kutxabankeko langileek prestakuntza- eta eguneratze-saioak jasoko dituzte, euren funtzioak ondo betetzeko bereziki diseinatuta daudenak.

Entitateak prestakuntza-plan bat ematea bermatu behar du, kontabilitate- eta finantza-gaietako, finantza-informazioa prestatzen eta berrikusten duten langileen postuetara eta arduretara egokituta dagoena.

2012ko ekitaldian egindako prestakuntza honako arloetan zentratu da:

- Kontabilitatea / Kontsolidazioa
- Juridikoa / Fiskala
- Auditoria
- Arauak betetzea

Entitatean emandako prestakuntza-saioak presentziazkoak eta *on-line* dira, barruko edo kanpoko prestatzaileen bidezkoak.

2. Finantza-informazioaren arriskuen ebaluazioa

2.1. Arriskuak identifikatzeko prozesuaren ezaugarriak zeintzuk diren, akatsarenak eta iruzurrarenak barne

Entitateak finantza-informaziotik eratorritako prozesuen, eremu esanguratsuen eta arriskuen identifikaziorako Politika bat du; horien barnean akatsa eta iruzurra daude.

Horrela, arriskuak identifikatzeko prozesua (arrisku horiek finantza-egoeretan izan dezaketen eragina esanguratsua da) finantza-informazioarekin lotzen diren kudeaketa-prozesu kritikoak eta arrisku horiek gertatzen diren finantza-egoeren eremuak edo epigrafeak identifikatzean ardatzen da. Prozesuak eta eremuak aztertze prozesuan, faktore kuantitatiboak (saldoa eta granularitatea) eta kualitatiboak (prozesuen automatizazio-maila, operazioen estandarizazioa, kontabilitatearen zailtasun-maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, identifikatutako kontrol-ahuleziak...) hartzen dira kontuan.

Ebaluazio-prozesu horrek finantza-informazioaren helburu guztiak betetzen ditu: (i) izatea; (ii) integritatea; (iii) balorazioa; (iv) aurkezpena; (v) eta eskubideak eta betebeharrak; eta beste arrisku mota batzuk ere kontuan hartzen ditu (operatiboak, teknologikoak, finantzetakoak, legalak...).

Arriskuak eta kontrolak identifikatzeko prozedura gauzatzea Finantza Zuzendaritzaren ardura da; prozedura berrikustea, berriz, Auditoria eta Betetze Batzordearena, Barneko Kontrolerako funtzioaren bidez.

Arriskuak identifikatzeko prozesuaren irismenaren berrikusketa urtero egiten da; horretarako, abenduaren 31ko Kontsolidatutako Egoera Publikoak erabiliko dira oinarri gisa. Alabaina, aurrez identifikatu ez diren egoerak gertatzen direnean (finantza-informazioko akatsak edo Entitatearen lan egiteko moduan funtsezko aldaketak adierazten dituztenak), Finantza Zuzendaritzak aurrez identifikatutako arriskuei gehitu beharreko arriskuak dauden ebaluatuko du.

Kontsolidazio-perimetroa egoki identifikatzearekin erlazionatutako arriskuak "kontsolidazio-prozesua" deritzon daude dokumentatuta; prozesu hori Kutxabanken lau prozesu kritikoetako bat da, eta urtero berrikusiko da.

3. Kontrolerako jarduerak

3.1. Finantza-informazioa berrikusteko eta autorizatzeko prozedurak eta FIKSen deskribapena; baloreen merkatuan argitaratu behar dira eta arduradunak nortzuk diren esan; kontrolen eta jardueren fluxuen eta finantza-egoerei eragin ahal dieten transakzio moduen dokumentazio deskriptiboa (iruzur-arriskuei dagozkienak barne), kontabilitate-itxieraren prozesura eta iritzi, estimazio eta proiektzioen berrikusketa zehatza barne.

Finantza-egoerei modu materialean eragin ahal dieten transakzioei lotutako jardueri eta kontrolei dagokienez, Entitateak finantza-informazioa sortzeari, lantzeari eta prestatzeari eragiten dioten prozesuen arriskuen eta kontrolen prozedurak eta matrizeak ditu.

Prozedurek prozesuan inplikaturako organigrama eta funtzioak, tartean sartutako sistemak eta prozesuaren deskribapena jasotzen dituzte; horrez gain, arriskuen eta kontrolen matrizeek honako eremuak kontenplatu dituzte, besteak beste:

- Arriskuaren deskribapena
- Kontrolerako jarduera
- Kontrolaren sailkapena: klabea/estandarra
- Kontrolaren kategoria: badaezpadakoa/detektatzailea
- Metodoa: eskuzkoa/mistoa/automatikoa
- Kontrolari eusten dion sistema
- Kontrola burutu eta bere ardura duena
- Kontrolaren maiztasuna
- Kontrolaren froga
- Etab.

Jarraian Entitatearen finantza-eremuekin erlazionatutako prozesu esanguratsuak (zeharkako prozesuen eta negozio-prozesuen arteko bereizketa egingo dugu) zehaztuko ditugu; horretarako badago aurretik aipatutako dokumentazioa.

Zeharkako prozesuak

- Kontabilitate-itxiera
- Kontsolidazioa
- Iritziak eta estimazioak
- Kontrol informatiko orokorrak

Negozio-prozesuak

- Kreditu-inbertsioa:
 - Kreditu-inbertsioak
 - Arrisku eta konpromiso kontingenteetarako hornidurak
 - Finantza-aktiboak okerragotzearen ondoriozko galerak
- Hartzekodunak: finantza-pasiboak amortizatutako kostuan.
- Finantza-tresnak:
 - Negoziazio-kartera
 - Saltzeko moduan dauden finantza-aktiboak.
 - Koberturatik eratorritakoak
 - Balorazio bidezko doikuntzak
 - Finantza-operazioen emaitza
- Higiezin aktiboak, zorra ordaintzeko jasotakoak (ANCEV, inbertsioak, higiezinak eta izakinak):
 - Salgai dauden aktibo ez korronteak
 - Aktibo materiala
 - Gainerako aktiboak
 - Salgai dauden aktibo ez korronteen (etendako operazio gisa sailkatu ez dituztenak) emaitza
- Konpromisoak pentsioka: Pentsioentzako funtsak, antzeko obligazioengatik.
- Sozietateen gaineko zergak: aktibo eta pasibo fiskalak
- Jarduera aseguratzailea: pasiboak aseguruaren kontratuengatik

Aurrez aipatutako dokumentazioa deskriptiboak honakoa jasotzen du:

- Prozesuarekin hasieratik erlazionatutako jardueren deskribapena; produktu edo operatiba batek izan ditzakeen berezitasunak adieraziko dira.
- Arrisku nabarmenak identifikatzea, Entitatearen finantza-egoeran eragin materiala dutenak.
- Kontrolak identifikatzea eta deskribatzea, baita aurrez identifikatutako arriskuekin duten lotura ere.

Aipagarriak diren iritzien eta estimazioen berrikusketari dagokionez, Entitateak bere urteko kontuetan iritzi- edo estimazio-parametroak dituzten eremu garrantzitsuenen berri emango du, baita horiei buruz Entitateak kontenplatu dituen hipotesi nagusien berri ere. Zentzu horretan, egindako estimazio nagusiak finantza-aktibo batzuk okerragotzearen ondorioz galdu izanari, pasiboak dagozkien kalkulu aktuariarrei, pentsiokako konpromisoei, aktibo material eta ukiezinen bizitza erabilgarriari, kotizatu gabeko finantza-aktiboen arrazoizko balioari eta higiezin aktiboen arrazoizko balioari dagozkie.

Horrez gain, Kutxabankek iritziak eta estimazioak egiteko politika orokor bat du; bertan, kontuan hartu beharreko gai guztiak agertzen dira, baita prestatzeko eta berrikusteko ardurak ere.

3.2. Finantza-informazioa lantzeari eta argitaratzeari lotutako prozesu aipagarriari eusten dieten informazio-sistemen sistemen inguruko (sarbiderako segurtasunaren, kanbioen kontrolaren, kanbioen operazioen, jarraikortasun operatiboaren eta funtzioen bereizketaren inguruan, besteak beste) barne-kontrolerako politikak eta prozedurak.

Entitateak informazio-sisteman erabiltzen ditu, bere operazioak ondo erregistratzeko eta kontrolatzeko; eta, beraz, ezinbestekoa da horiek ondo funtzionatzea.

Entitateak Informatikako Kontrol Orokorraren Prozesu bat du; horrek dagokion prozedura eta arriskuen eta kontrolen matrizea du; matrize horretan agertzen dira sarbiderako segurtasunari, kanbioen kontrolari, kanbioen operazioi, jarraikortasun operatiboari eta funtzioen bereizketari buruzko arriskuak eta kontrolak.

Aplikazioen diseinuan eta inplementazioan marko metodologiko bat definituta dago; marko horrek kontrol puntuak ezartzen ditu, lortutako soluzioak erabiltzailearen eskakizunak betetzen dituela eta kalitate-mailak fidagarritasun, efizientzia eta mantentze estandarrak betetzen dituela bermatzeko. Entitatearen negozio-aplikazioak eskatzeko, diseinatzeko eta ezartzeko metodologia bat dago.

Azpiegitura- edo aplikazio-mailako edozein aldaketa barneko metodologiaren bidez kudeatzen da; metodologia horrek aldaketa onartzeko fluxu bat definitzen du, baita eragina eta balizko atzeraldia ere.

Entitatearen Informatika Zuzendaritzak sarbideei dagokien segurtasuna bermatzera bideratutako politikak ditu ezarrita, funtzioen bereizketaren bitartez rolen eta profilen definizioarekin. Gauza bera funtzionamenduaren jarraikortasunarekin: babeserako zentroak sortuta eta eraginkortasunari buruzko aldi-aldi probak eginda.

Kontingentzia Informatikoko Planak babeserako ispilu-zentroetan oinarritzen dira, eta Host eta Distribuzio sistemetara zabaltzen dira Plan horietatik aldizkako probak eta kontrolak egiten dira, ondo funtzionatzen dutela bermatzeko.

Oinarrituko zerbitzuen (azpiegiturak, telekomunikazioak...) hornitzaileek gaitasun handiko segurtasun-sistemak ezarri dituzte, sektoreko praktikarik onenetan oinarrituta. Entitateak aldi-aldi berrikusiko du "Services Level Agreement" (SLA) betetzen dela.

3.3. Barneko kontrolerako politikak eta prozedurak, hirugarrenei azpikontratutako jardueren kudeaketa gainbegiratzeari zuzendutakoak, baita aditu independenteen agindutako ebaluazio, kalkulu edo balorazio gaiak ere, finantza-egoerei modu materialean eragin ahal diotenak.

Entitateak aldi-aldi hirugarrenek egindako jarduerak (finantza-lanketa egiteko garrantzitsuak direnak edo bere fidagarritasunean eragin dezaketenak) berrikusten ditu. Entitateak askotan aditu independenteen informea erabiltzen ditu, finantza-egoerei modu materialean eragin ahal dieten operatibei buruzkoak.

2012ko ekitaldirako hirugarrenei agindutako jarduerak (balorazioekin eta aditu independenteen kalkuluarekin erlazionatutakoak) honakoarekin izan dute erlazioa:

- Egituratutako eta eratorritako finantza-tresnen balorazioak.
- Langileek hartutako konpromisoen ikerketa aktuariaren kalkuluak
- Adjudikatutako higiezinaren eta Entitatearen kreditu-zorroaren operazioetan berme gisa ari diren higiezinaren tasazioak

Entitateak kontrolak maila guztietan ditu ezarrita, jarduera horien arriskua txikitzeko; kontrol horiek operatibaren arduradunek burutuko dituzte. Arduradun horiek bere kompetentzia,

gaitasuna, egiaztagiria edo independentzia egiaztatu behar dute, baita erabilitako datuen eta metodoen balioa eta hipotesien arrazoizkotasuna ere.

3.4. Finantza-informazioa berrikusteko eta autorizatze prozedurak eta FIKSen deskribapena, baloreen markatua argitaratzeko, arduradunak zeintzuk diren esanda.

Merkatua argitaratzen diren Entitatearen finantza-informazioa berrikusteko eta autorizatze prozedurak honela hasten dira: Finantza Zuzendaritzak Entitatearen banakako eta kontsolidatutako informazioa berrikusten du, baita Talde Ekonomikoko eta partaidetzako enpresetako filialen kontsolidazio-paketeak ere. Merkatuetan argitaratzekoak diren banakako eta kontsolidatutako kontuak Auditoria eta Betetze Batzordeari igortzen zaizkio, eta gero Entitatearen Administrazio Kontseiluari. Administrazio Kontseiluak kontuak aztertu eta onartuko ditu, beharrezko erabakiak hartu eta kanpoko auditoreekin eztabaidatuko ditu.

Argitaratu behar den finantza-informazioan esanguratsuak diren eta eragin handia duten ahuleziak detektatuz gero, Auditoria eta Betetze Batzordeari jakinaraziko zaizkio berehala, Araudia Betetzea eta Barneko Kontrolaren bidez; orduan jarriko da martxan ahuleziak leuntzeko eta zuzentzeko ekintza-plana.

Horrez gain, Auditoria eta Betetze Batzordeak eta Administrazio Kontseiluak egindako saioetan (bertan esaten dira Entitatearen urteko kontuak), kanpoko auditoreak hartuko dut parte, beharrezko argipenak egiteko eta auditorian detektatutako barneko kontrol-sistemaren ahulezia esanguratsuak jakinarazteko.

4. Informazioa eta komunikazioa

4.1. Funtzio zehatz bat, kontabilitate-politikak definitzeaz eta eguneratzeaz arduratuko dena, baita horiek interpretatetik eratorritako zalantzak edo gatazkak ebazteaz ere: antolakundeko operazioen ardura dutenekin harreman arin bat izango du; orobat eguneratutako kontabilitate-politiken eskuliburu bat, Entitateak operatzen duen unitateekin komunikatuta egongo dena.

Finantza Zuzendaritza, bere mende dauden arloen babesarekin, arduratuko da Entitateari eragiten dioten (Talde Ekonomikoko eta partaidetzako enpresetako filialak barne) kontabilitate-politikak identifikatzeaz, definitzeaz eta komunikatzeaz, baita filialek, partaidetzako enpresek edo Entitateko negozio-unitateek planteatzen dituzketen izaera kontableko kontsultei erantzuteaz ere.

Taldeko filial eta partaidetzako enpresa bakoitzak kontsolidazio-paketeak hiru hilerik behin betetzen dituzte, eta Kontsolidazio eta Kostuen Arloa da Talde Ekonomikoko filialek eta partaidetzako enpresek kontabilitate-erregistroko jarraibideak eta Entitateak markatzen diren kontabilitate-politikak betetzen dituztela bermatzen duena. Arlo horretatik aztertzen eta berrikusten da filialen eta partaidetzako enpresen informazioa; eta, beharrezkoa bada, sozietateei jakinarazten zaizkie kontsolidatua egiteko behar diren aldaketak.

Finantza-informazioari eragiten dion araudiaren aldaketak egotekotan, eta finantza-egoeretan eragina izatekotan, Finantza Zuzendaritzaren ardura da, eta zehatzago Kontabilitate Arloarena, eragina duen arloetako langileei jakinaraztea.

Gaur egun, Kontabilitate Arloa Kutxabank Taldeari aplikatzeko kontabilitate-politikak zehazten dituzten dokumentuen konpilazio eta eguneratze fasean dago.

Taldeari aplikatu beharreko politikak definitzen dituen eta finantza-egoerak ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela erakustea ahalbidetzen duen kontabilitatearen araudi-markoak honakoa jasotzen du: (i) Finantza-informazioaren Nazioarteko Arauak (ii) abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra, Espainiako Bankuarena

4.2. Finantza-informazioa formatu homogeenekin kapturatzeko eta prestatzeko mekanismoak, Entitateko edo Taldeko unitate guztiek aplikatzeko eta erabiltzeko

mekanismoak; mekanismo horiek finantza-egoera nagusiei eta oharrei eutsi behar diete, baita FIKSi buruzko informazioa ere.

2012an, Kutxabankek hiru plataforma informatiko independenteen bidez (jatorrizko Kutxaren arabera) lanean jarraitu duenez, hiru eremuen kontabilitatea modu automatikoa gehitzeko prozesu bat egin behar izan da; horri esker, Finantza Zuzendaritzaren bidez Entitate osoko finantza-informazioa gainbegiratu ahal izan da.

Halaber, Espainiako Bankuari informazioa bidaltzeko tresna, "Datuak Kapturatzea" deritzona, hiru eremuetatik sartzen diren egoerak erantsi ahal izateko prestatu da, eta baita Kutxabank mailan eskatutako koadratzeak egiteko ere. Espainiako Bankura bidalitako informazioa Kutxabankek kontabilitatearekin koherentea dela ziurtatzeko, hilerok Espainiako Bankuko egoeren eta emaitza publikoen balantzeren eta kontuaren eta erantsitako finantza-egoeraren koadratze bat egiten da.

Finantza-informazioaren kontsolidazio- eta prestakuntza-prozesua modu zentralizatuan egingo da Entitateak, Hyperion-HFM aplikazio informatikoa erabiliz. Talde Ekonomikoko filialen kontsolidazio-prozesua egiteko, Entitateak duen aplikazio informatiko berbera edukiko dute. Elkarrekin bi modu dituzte Entitateak eskatutako datuak iraultzeko: txantiloia betetzea sistema informatikoa edo webaren bidez egitea. Elkarrekin eskatutako datuak taldearen kontsolidatua egiten duen tresna informatikoa irauliko dira zuzenean.

Prozesu horretan filialek eta partaidetzako elkarteek emandako kontsolidazio-paketeak erabiliko dira input gisa, ezarritako irizpideei eta formatuei jarraiki, baita gainerako finantza-informazioa ere. Entitateak emandako kontsolidazio-paketeak desberdinak dira filialetan eta partaidetzakoetan: kontuan izan behar da Finantza Zuzendaritzak kontabilitate-itxiera egiteko irizpideak eman ahal dizkiela filialei, baina ezin du eragin partaidetzakoaren itxiera-prozesuan.

Horrez gain, Kontsolidazioaren eta Kostuen Arloak du filialek eta partaidetzako elkarteek emandako finantza-informazioa berrikusteko ardura. Eragin esanguratsurik ez dagoen elkarteetan edo informazioan jazoerak daudenetan, Kontsolidazioaren eta Kostuen Arloak egokitzapenak egingo ditu, irudi fidela islatzeko.

Entitateak inplementatutako kontrol batzuk ditu, filialen, partaidetzako enpresen eta negozio-unitateen fidagarritasuna eta trataera egokia ziurtatzeko; kontrol horien artean kontsolidazio-idazpenen kontrolak, hileko aurrekontuaren gaineko emaitzen bariazioak eta Espainiako Bankuaren egoerari dagozkion kontrolak azpimarratu behar dira.

Era berean, Entitatearen urteko kontuak formulatzerako orduan, elkarte filialek eta partaidetzakoek, kontsolidazio-paketeak egin eta gero, kontuen auditoreek sinatutako adierazpenen gutunak bidaliko dituzte.

5. Sistemaren funtzionamenduaren berrikusketa

5.1. Auditoria Batzordeak egiten duen FIKSen jardueren berrikusketa, eta ea Entitateak barneko auditoriako funtziorik duen, eskumenen artean komiteari laguntza ematearena duena, barneko kontrolerako sistemaren gainbegiratze lanetarako. Orobat, ekitaldian egindako FIKSen informarean irismenaren inguruko informazioa emango da, baita ebaluazioa egin duenak emaitzak emateko erabili duen prozeduraren ingurukoa ere. Entitateak neurri zuzentzaileen berri emateko ekintza-plan bat duen eta plan horrek finantza-informazioan izan dezakeen inpaktua kontuan hartu den esango da.

Kutxabanken Barneko Kontrolerako Unitatearen funtzioa Barneko Kontrolaren eta Auditoriaren Zuzendaritzaren menpe dago. Arlo horren funtzioen artean honakoa dago: Auditoria eta Betetze Batzordeari laguntzea finantza-informazioa lantzen eta aurkezten. FIKSen berrikusketaren ebaluazio-plana eta emaitzak urtean behin aurkeztuko zaio gutxienez Auditoria eta Betetze Batzordeari. Barneko Kontrolak egindako informean honakoa jasoko da: egindako lanaren irismena, jasotako emaitzak, balizko jazoeren eragin posibleak eta ekintza-planak.

Barneko Kontrolaren funtzioak Barneko Kontrol Plan bat du, Arauak Betetzeko eta Kontrolerako Planaren barruan dagoena. Plan horrek Kutxabankek barruan garrantzitsutzat jotzen diren eremuetako probak egitea aurreikusten du; eremua guztiak hartuko ditu, planak hartzen dituen

hiru urteen barruan; salbuespena izango dira garrantzi berezia duten eremu edo prozesu batzuk, adibidez, kontabilitate-itxieraren prozesu kritikoak, kontsolidazioa, iritziak eta estimazioa eta informatikako kontrol orokorrak.

2012an Auditoria eta Betetze Batzordeak finantza-informazioaren barneko kontrolerako sistemen berrikusketa eta kontrol lanak Arauak Betetzearen eta Barneko Kontrolaren Arloari agindu dizkio. Halaber, Auditoria eta Betetze Batzordeak finantza-informazioaren barneko kontrolerako sistemen berrikusketa-prozesuaren irismena ebaluatu eta balidatu du, eta 2012an egindako zeharkakotzat hartzen diren prozesuen berrikusketaren berri eman zaio.

2012ko ekitaldian egindako ebaluazioaren irismenak FIKSen funtzionamendu formalaren gainbegiratzea ere barnean sartzen du, baita honakoak ere: kontabilitate-itxieraren prozeduraren klabea, iritziak eta estimazioak, kontsolidazioa eta informatikako kontrol orokorrei buruzko politikak betetzen direla berrikustea.

2012ko ekitaldiko ebaluazio-prozesuan 99 kontrol aztertu dira; horietatik 89 kritiko gisa identifikatu dira. Identifikatutako kontrol-ahulezien eta hobekuntzarako aukeren ondorioz 15 ekintza-plan sortu dira.

Horrez gain, Barneko Auditoriaren funtzioa Barneko Kontrolaren eta Auditoriaren Zuzendaritzaren menpe dago. Arlo horren funtzioen artean hau dago: politikak, planak, prozedurak, arauak eta legeak betetzen direla eta barneko kontrol-sistemak eraginkorrak direla bermatzen duten sistemak aztertzea eta ebaluatzea; sistema horiek hobetzeko iradokizunak ere bidali behar ditu. Barneko Auditoriak askotan, gutxienez hiru urtero, egin beharreko lanen artean hau dago: informe bat egitea FIKSen egoerari eta ahuleziak identifikatzeak sortu ahal duen eraginari buruz; horren bidez, lan osagarriak planifikatzeari buruz eta arriskuak txikitzeo neurriei buruz erabakiak hartuko dira. Informe hori Auditoria eta Betetze Batzordean aurkeztuko da.

5.2. Eztabaidarako prozedurarik duen, prozesua den bitartean kontuen auditoreak, barneko auditoreak edo horretarako kontratatutako adituak goi-zuzendaritzari eta Auditoria Batzordeari edo entitateko administratzaileei barneko kontroleko ahulezia esanguratsuen berri emateko. Era berean, ekintza-plan bat duen esan behar izango du, ikusitako ahuleziak zuzentzeko edo leuntzeko.

Auditoria eta Betetze Batzordea urtean birritan bilduko da gutxienez (erregulatutako informazioa argitaratu aurretik), Administrazio Kontseiluak emandako eskumenak betetzeko beharrezko informazioa jasotzeko eta aztertzeko.

Kontuen auditoreak kontuen auditoriaren hasieran eta amaieran lortutako emaitzen berri emango du. Kontuen auditoria amaituta, kanpoko auditoreak Auditoria eta Betetze Batzordean Urteko Kontuak eta Espainiako Bankuaren Informe Osagarria aurkeztuko ditu; azken horretan, finantza-informazioaren prozesua ebaluatuko da. Prozesu hori aurrera eramateko, aurrez Auditoria eta Betetze Batzordeak dokumentazioa jasotzen du, eta Finantza Zuzendaritzarekin batera aztertzen du, indarreko arauak aplikatzen direla eta finantza-informazioa fidagarria dela ziurtatzeko.

Auditorian Entitateko kontuen auditoreak Entitateko Goi Zuzendaritzarekiko harremana du, eta aldizkako batzarrak ditu berarekin, bai bere lana egiteko beharrezko informazioa lortzeko, bai detektatutako ahuleziak komunikatzeko.

Horrez gain, eztabaida-prozesu horretan identifikatutako FIKSen ahuleziak ebaluatuko dira, eta zuzentzeko proposamenak eta inplementatutako ekintzen egoera ere bai. Horrela, urtero eta FIKSen markoan, Auditoria eta Kontrol Batzordeak Barneko Kontrol eta Auditoria Zuzendaritza-ondoko Orokorrek proposatutako jarduera-planak berrikusi eta onartuko ditu.

6. Bestelako informazio esanguratsua

Atal honetan ezer aipagarririk ez.

7. Kanpoko auditorearen informea

7.1. Kanpoko auditoreak merkatuei igorritako FIKSen informazioa berrikusi duen. Horrela balitz, entitateak dagokion informea sartu behar luke, eranskin gisa. Horrela ez balitz, horrela ez izatearen arrazoien berri eman behar luke.

Kutxabanken erabakia honakoa izan da: kanpoko auditoreak ez dezala FIKS berrikusi, Entitatearen integrazio-markoa dela eta, eta FIKSeko arlo batzuk formalizazio-prozesuan daudelako. Prozesu hori 2013an amaitzea espero da.
